




- **Larrun** Hondakinak kudeatzeko ereduak parez pare
- **UEMAren hesiak** Espainiako Legediaren babesik gabe eta EAJrekin tira-biran
- **Miren Agur Meabe:** «Exibizionismo puntu bat dudala aitortu behar dut»
- **Ardogintza** Upategi handiak mahats ekoizleak zukutzen ari dira
- **Net Hurbil** Irlanda 'eredugarria' herritarrek ordainduko dute

Kronika Afganistandik

Gerra zibilaren atarian





Euskara da gure sustraia. Guztion artean zaindu, eta hazten ikusiko dugu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua



Azaleko argazkia:
KARLOZ ZURUTUZA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Kortza.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Azur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera >



**gizarte
kutxa**
Zugandik Zugana



• **NON ZER** •

2010eko azaroaren 28a, 2.254. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **David de Jorge:** «Zin dagit sukaldari ona naizela!». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **Afganistan.** Hamar urte, hamaika dolu. KARLOS ZURUTUZA / 5

Pertsonaia

- **Alizia Casanova Gomez:** «Leningraden ginen neskatiloi errenditzeko eskatzen ziguten alemanek». MIEL A. ELUSTONDO / 11

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Lurralde marka. ANA URKIZA / 16
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Shanghaiko lezioa.** OIER ARAZOLAZA / 18
- **Txandan** Autorik gabe. CASTILLO SUAREZ / 18
- **Biloben maitasuna.** EKAI TXAPARTEGI / 19
- **Hiruko txikian** Biktimen aroa. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Bertso berriak** Oroiminari jarriak. JEXUX MARI IRAZU / 20

Erdiko kaiera

- **Miren Agur Meabe:** «Poesia traizionatzen baduzu zure bizitza traizionatzen ari zara». MIKEL ASURMENDI / 21
- **Liburuak** SAIO RUIZ GONZALEZ / 26
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 27
- **Ezpalak** JON TORNER / 28
- **Abarrak** JON TORNER / 29
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO / 30
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 32
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 33
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

Termometroa

- **Mahastizaintza krisian.** Ardo ekologikoaren aukera sasoi beltzean. URKO APAOLAZA, DANIEL UDALAITZ / 35
- **UEMA.** Hoge urte ibilian lege babesik gabe. UNAI BREA / 38
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Irlandan ikusi, burbuila lehertu ostean zer datorren. PELLO ZUBIRIA / 48

Azkena

- Beste modu batean. INMA ERREA / 50



“Zin dagit sukaldari ona naizela!”

David de Jorge | Robinfood

Bai, hondarribiarrak bikingoak dira.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Alardearena konpontzeko errezetarik bai?

Elkarri ostiaka hasi zirenean utzi nion ateratzeari. Bertakoa izan arren ez dut ulertzen, baina ez duzu uste bonbardeatuko bagintuzte berriz zerotik hasiko ginatekeela?

Sukaldari bat bonbardaketa eske?! Ez al zinen gure herriaren enbaxadore gorenak?

Mesias berriak garela dirudi, baina oso sukaldari gutxik gaingitu zuen batxilergoa! Ni oso harro nago nire ofizioarekin, baina nahikoa da. Nire herriarentzat enbaxadore formatuak nahi nituzke.

Jatetxe ospetsuetan janariaren partez esperimentziak saltzen direnetik...

Laino horietan hegan egiteak gatibatu nau urteetan, baina hortik askatzea lortu dudaketik, abdominalak lantzeraino egiten dut barre. Ez zait ofizioa intelektualizatzea gus-tatzen.

Ai, frustrazioak...

Egungo sukaldaritzan dena da arintasuna, berrikuntza, benetakotasuna... Sukaldaritzak ez du justifikaziorik behar. Sukaldariaren lekua sukaldea da, ez pulpitu. Eltzeak jar-tzen gaitu gure lekuan.

Horregatik egiten duzu lasaiago lo Arguiñano-ren pulpitu ordutegiz aldatu denetik?

Arguiñanorena beste liga bat da, *Champions*. Jende asko ikusi dut bera imitatu nahian erri-dikulua egiten. Nik ez dakit txisterik konta-tzen, memoria txarra daukat, berak baino 100

kilo gehiago eta 23 urte gutxiago daukat... Zer arraio egin behar dut nirea ez bada?

Guarrindongadak, irainak eta hitz larriak bata bestearen atzetik bota...

Zer erru daukat nik kalean gurutzatzen ditu-dan umek “Biba Rusia” esaten badidate? Ados, kamera aurrean jartzeko aurpegi galan-ta behar da, nirea bezalako programa batek ez du sukaldari ona izatea eskatzen, baina zin dagit sukaldari ona naizela!

Hori kritiko gastronomikoak telebista progra-mak epaitzen hasten direnean ikusiko dugu!

Ez zaizu iruditzen kritikoek jendea tontotzat hartzen dutela? Lainoen usaina esplikatzan diguten bakoitzean, barrearen barrez, abdo-minalak egiten jarraitzen dut. Ez al zenekien 100 jatetxe onenen zerrenda sukaldari-ek euren buruak famatzeko muntatutako para-fernalia dela?

Nik zuk kritikak idazten dituzula dakit.

Baina irakurlea ni baino argiagoa dela pentsa-tzen dut beti! Erridikulua iruditzen zait jate-txeak puntuatzea. Lainoetatik ihesi nabil, ber-din zait berenjenak potasioa duen ala ez, nik plazera transmititu nahi dut!

Plazera? Janariarekin obsesionatuta gaude-eta!

Okerragoa da zer janik ez daukazulako obse-sionatzea! Obsesiboki pentsatuta, ez dago hain gaizki gosaldurik, bazkaldu, afaldu, eta tripa beteta lo egin dezakezun gizarte batean bizitzea. ■

• ASTERO GAIA •

Afganistan

Hamar urte, hamaika dolu



Afganistango azken inbasio saiakera hamargarren urtean sartzera doa. Milaka herri, lagun eta amets erre ondoren, baliteke gatazka amaigabea gerra zibil bilakatzea aurrerantzean.

Testua eta argazkiak:
KARLOS ZURUTUZA

*"Afganiarrek gerra amaigabeei eutsi ohi diete;
beti norbaiten kontra, inoiz ere ez zerbaiten alde".*

Wojciech Jagielski, gerra-kazetari poloniarra.





AFGANISTANGO HEGAZKIN-KONPAINIEK ospe eskasa dute. Hegazkin oso zaharkituak dauz-kate eta, gainera, tiketen prezioak izugarri garestitu dira azken hilabeteotan. Nolanahi, herrialdean zehar bidaiatzeko aukera bakarra dugu airekoa. Iparralderantz izan ezik, ezin daiteke atera Kabuldik errepide bidez. Gaur, Karzairen Gobernuaren kontrako oposizioak menderatzen ditu lurreko bide gehienak.

“Talibanek errepide erdian geldiarazi deza-kete zure ibilgailua eta dena miatu gero, batez ere zure telefono mugikorra. Izen arrotzik edo latindar zenbakirik topatuz gero, akabo!”. Ashrafek ederkir asko daki, autobus gidaria izan baitzen urte askoz. Egun, oso afganiar gutxi bidaiatzen dute errepidetik eta Ashraf langabezia gelditu da.

Eta mugikorrik ez eramatekotan? “Ez dio axola, irakurtzen dakizun ala ez erraz bereiz dezakete zure aurpegieran, zure hitz egiteko moduan... eta irakurtzen dakien orori (biz-tanleriaren %20a) ‘kolaboratzaile’ kutsua har-tzen diote”, dio autobus gidari ohiak.

Ariana, Kam Air eta Pamir bertako hegaz-kin-konpainiek probetxu ederra atera diote egoera honi. Kabuldik herrialdeko edozein hiribururainoko tiketaren prezioa nekez jai-tisiko da 170 euroetatik, iazko bikoitza, eta polizia, bulegari edota Gobernuako langile askoren hilabeteko soldata.

Goian, Kabulgo bazarretako bat. Eskuineko orrian, ohiko kontrola Helmand-en.

Nola doa gerra?

Goizeko seiak Kabulgo aireportuan. Lashkar Gahrako itxarongelan, erraz bereiz daiteke Robert beste bidaideen artean. AEBetako armadako ofiziala da eta bost hilabete dar-matza jada Afganistanen, bertako segurtasun tropen instruktore. Gaur Helmandera doa, herrialdeko eskualderik arriskutsuena, Kan-daharrekin batera.

“Gerra gaizki doa”, onartu du bostonda-rak. Espero ez bezala, ez du inolako ahalegi-nik egin etsipena ezkutatzeko. “Gerraren lehenbiziko bi urteak (2001-2003) lasaiagoak izan ziren, talibanak berrantolatu arte. Gero, NATOk hegoaldean gogor jo zuen baina tali-banak herrialde osotik sakabanatu ziren. Nonahi daude egun. Esperientziak diosku ofentsiba handiek ez dutela ezertarako balio Afganistanen. Posizio xume bat irabazi eta mantendu ahal izateko, milaka soldadu behar ditugu”.

Agian Helmandeko Marjah eskualdea dugu horren adibiderik garbiena. NATOk eta ANAk (Afganistango armada) bost hilabete behar izan dituzte interes estrategikorik apen-as duen eskualde hori kontrolatzeko. Marjah herri txikia baino ez den arren, milaka soldadu daude han, “segurtasun baldintzak bermatze-ko”. Bitartean, oposizioa alboko Farah, Kan-dahar edo Nimroz eskualdeetan babestu da.

“Zuek munduko erloju guztiak dauzkazue, baina guk denbora”, esan omen zien talibanen komandante batek bera harrapatu zuten atzerriko soldaduei. Denbora falta da, hain juxtu, Afganistan inbaditu dutenen arazorik handiena.

Marjah txikiaren gaineko ofentsiba erraldoia angelu ugaritatiek azter daiteke. Joan den urtean, bederatzi sendagile (sei afganiar eta hiru italiar) atxilotu zituen Lashkar Gahn afganiar poliziak, britainiar armadaren laguntzaz. Italiar *Emergency* Gobernuz Kanpoko Erakundeak kudeatutako ospitaleko langileak ziren eta “Helmandeko gobernadorea hiltzeko ekintza bat prestatzen ari ziren”; hala zioten Kabulek eta Londresek. Hori gutxi ez eta “lehergailuak aurkitu ziren ospitaleko biltokian”. Medikuek aske gelditu ziren berehala, akusazio larriok ez baitziren frogetan sustengatzen.

“Marjah erasotzen hasi zirenean pasabide humanitario bat irekitzea eskatu genien atzerriko tropei, biktimak gure ospitalean hartu ahal izateko”, gogoratu du Mateo Dell’Airak, atxilotuetako batek. “Lashkar Gahko ospitalera iristen diren biktimen %90 zibilak dira; horietatik erdia, umeak”, dio Milangoak. Horrela doa gerra Helmand eskualdean.

“Zuek munduko erloju guztiak dauzkazue, baina guk denbora”, esan omen zien talibanen komandante batek bera harrapatu zuten atzerriko soldaduei. Denbora falta da, hain juxtu, Afganistan inbaditu dutenen arazorik handiena

Dell’Airak argi dauka: “Koalizioko tropak hemen burutzen ari diren basakerien lekuko deserosoa bilakatu gara, horrexegatik baztertu nahi gaituzte”.

Afganistango hiru matxinadak

Nimroz eskualdea Helmand alboan dago. Duela ez hainbeste, Lashkar Gahtik bost ordutan iris zitekeen Zaranjera (Nimrozeko hiriburua) errepidetik. Egun, aldiz, hegazkinez baino ezin da: Kabulera lehenengo, Heratera gero eta, handik, Zaranjera. Zor-tea lagun, hiru egunetan egin liteke Lashkar Gah-Zaranj bidea. Oztopoak oztopo, lur eta giza paisaiak apenas bereiz daitezke

Nimroz eta Helmanden artean; pentsamoldeak ere apenas aldatzen dira.

“Aspaldi ez naiz Khang nire herrira joan. 20 kilometro besterik ez dira hemendik (Zaranjetik), baina beldur handia diot errepideari”, dio Muhamadik. 24 urteko pastundar honek bizar beltza eta durbante zuria ditu. Askok talibanen itxura hartuko zioten, baina Zaranjeko gizarte-dinamizatzailea da, Kabulgo Gobernuarentzat egiten du lan. Edonola, ezin esan bere diskurtsoa “amerikarren morroi” batena denik, inondik ere: “Askotan esaten da talibanak Pakistandik, Saudi Ara-





biatik, Uzbekistandik edo Txetxeniatik iritsi direla, baina bertako pastundarrak dira gehienak. Gure herria inbaditua ikusten dute eta, jakina, ez dute gustuko. Kabulén amerikarrak ala talibanak dauden jakiteko badugu modurik eskualdeotan: lehenengoek gerra ekarri dute; besteek, mendez mende mantendutako legeari eutsi diote. Eta Afganistan hegoaldeko herri txikietan ez dute besterik ezagutu”, dio Gobernuako funtzionario honek.

Talibanek hiru helburu nagusi dauzkate: subiranotasuna, erlijioa eta balioak. Diotenez, 30.000 gerlari pasatxo dira, nahiz eta, atzean, milioika gazte pastundarren harrobi sendoa dagoen. Edonola, nekez esan genezake talibanek talde homogeneoa osatzen dutenik. Pakistango madrasetan (eskola islamikoetan) ikasitakoak daude, edota senide batzuk (edo sendi oso bat) mendekatu nahi dutenak; opio eta

Ezker-eskuin: gerra errefuxiatuak Kabulén; Helmand-eko pastundarra bertako ospitalean; eta gerra hondakinak Panjshir ibaian.

heroina trafikoa aritzen direnak; errepideko bidaiari urrien lapurrak edo, besterik gabe, soldata baten truke borrokatzen dutenak –taliban batek 200-300 dolarreko soldata jaso lezake; afganiar soldata bat, ordea, 150 dolarrekoa baino ez da—. Eta egon badira ere nekazariak direnak egunez eta gerlariak gauez...

Ados, oposizioa ez da espero bezain “konpaktoa”. Eta “posizioa”?

Batetik, Kabulgo Gobernua dago, garai bateko gerra-kriminalen bilgune, bai eta ustelkeriaren paradigma. 2009 eta 2010eko hauteskundeetan salatutako irregulartasunek nahiz ustelkeri akusazio anitzek Gobernua ahuldu besterik ez dute egin herriaren aurrean.

Bestetik, Koalizioko tropak: estatubatuarak, britainiarrak, alemanak, espainiarrak, kanadarrak, errumaniarrak, georgiarrak, kroaziarrak, estoniarrak, turkiarrak, bulgariarrak...



Euskaraz blai Hernanin





Eta ezin ahaztu Xek taldekoak (lehen “Blackwater”) edota herrialdean zehar sakabanatutako tankera bereko hamarka mila mertzenarioak.

Talibanentzat “amerikarrak” dira horiek guztiak eta AEBetako Gobernua ikusten dute horien atzean. Baina hitz egin dezakegu estatubatuar administrazio bakar batez? *Obamaren Gerrak* liburuan, Bob Woodward kazetari amerikarrak bikain deskribatzen ditu Gobernu barruko desadostasunak Afganistango gerra dela-eta, tropen kopurutik erretiratzeko dataraino. Gauza jakina da “Washington” deitzen dugun entitate horren atzean makina bat talde eta azpi-talde daudela, hots, Estatu Departamentua, Pentagonoa, NSC (Nazio Segurtasun Kontseilua), CIA, FBI, NSA (Nazio Segurtasun Agentzia)... Bakoitza bere aurrekontu eta agenda propioekin.

Afganiar kazetari Davood Moradianek formula ulergarria erabiliz askatu du Asiar herrialdea lotzen duen korapiloa: “Afganistanen hiru matxina da mota daude: Quettakoa (talibanen buruzagi Omar mularena, Pakistango zerbitzu sekretuek babestua); Kabulgoa (Karzairen Gobernua) eta Washingongoa”.

“Omar mulak argi utzi du beti, atzerriko tropak erretiratu arte ez dago negoziatzerik. Zergatik negoziatu nahiko lukete talibanek orain? Gerra irabazten ari dira-eta!”

NANGI, AFGANIARRA

Eta aktore nagusien atzean Iran dator, talibanei lagunduz eta Karzai erosi nahian, aldi berean. Estatubatuarrei fronte guztietan min egitea da honen helburua.

Negoziatzeko irrikan

“Talibanekin negoziazioak abian dira”. Hori xe Washington-Kabul binomioak berriki gehien errepikatu duen mezua.

“Borrokatzen ez duten talibanak baino ez dira negoziatzen ari”, dio Nangik. San Frantziskon (AEB) hogeitazero eman ondoren, Herat jaioterrira bueltatu zen iaz. Eraikuntza negozio bat jarri nahi zuen martxan, baina etsita dago jada: “Badirudi Gobernuko funtzionario guztiak sobornatu behar ditudala nire enpresa ezartzeko. Eta zertarako inbertitu aurki hondoa joko duen herrialde batean?”, dio, Ameriketara ikasi duen ingeles bikainaz. “Kabulgo Gobernua gero eta ahulagoa da eta Koalizioako tropak joateko presiopean daude. Bestalde, Omar mulak argi utzi du beti, atzerriko tropak erretiratu arte ez dago negoziatzerik. Zergatik negoziatu nahiko lukete talibanek orain? Gerra irabazten ari dira-eta!”, gaineratu du.

Oxangoiti
Hotel Jauregia

Gamarra kalea, 2
Lekeitio (Bizkaia)
94 465 05 55 / 659 393 928
www.oxangoiti.net



Pastundarrak, gutxitutako gehiengoa

Azken populazio errolda 70eko hamarkadan egin bazen ere, egun 28 milioi afganiar daudela kalkulatzen da. Afganistan herrialde kultur anitza da; pastundarrak, tajikoak, uzbekiarrak, turkmeniarrak eta balutxeak bizi dira bertan. Pastundarrak herrialdeko ekialde eta hegoaldean dira nagusi eta biztanleria osoaren %60a osatzen dute. Hala ere, eurenganako

bazterketa salatu dute azken urteotan, Gobernuako postu gehienak, polizia eta armadatik ministerioetara, beste etniakoek hartu baitituzte. Hainbat sektorek "Iparreko Aliantzaren (talibanen kontrako mugimenduaren) itzala" sumatu dute Karzairen Gobernuan. Presidentea ei da, hain juxtu, kabineteke pastundar urrietako bat.

Rashidek ere urte ugari eman ditu erbesteetan, Pakistanen, hain juxtu. Duela bost urte etxera bueltatu eta alfonbren denda bat ireki zuen Kabul. Sasoi hobeak ezagutu ditu, baita okerragoak ere: "15 urte nituela aitarekin joan nintzen Hezkuntza Ministeriora, nire ikasketa agiriaren bila. Talibanak zeuden agintean eta bulegoetan ez zegoen ez mahairik, ez apalik, ez idazteko makinarik... Azkenean dokumentua sinatu behar zidan funtzionarioa aurkitu genuen, gela huts baten erdian zegoen, estufa baten alboan eserita. Sua bulegoko paper ofizialekin elikatzen ari zen". Rashidek, jakina, ez zuen bere ikasketak agiria inoiz eskuratu.

Talibanak boterean zeudela, hiriek sufritu omen zuten gehien. Ministerioak eta Gobernuako bulegoak itxi zituzten eta herrialde osoko fabrikek porrot egin zuten; kaleko zaborra ez zen jasotzen eta argi-indarra, berogailu sistemak, klinikak... Dena desagertu zen. "Ez sinistunen" exekuzioak izan ezik, gainontzeko jarduera guztiak eten ziren Afganistanen.

"Gorrito ditut kanpoko tropak, ez zait gustatzen nire herria inbaditua ikustea. Baina azkarregi erretiratzekotan, talibanak erraz nagusituko dira eta erbestera jo beharko dugu berriz". Rashiden "ezin zurekin bizi, ezta zu

gabe ere" sentimendua oso zabaldua dago afganiarren artean.

Bitartean, AEBek iaztik bultzatutako estrategia berriari gogor eusten diote: bertako talde paramilitarrak sustatzea. Kandahar eskualdea dugu horren adibide garbiena. Nazioarteko kazeta medio handiek makina bat aldiz salatu dute presidentearen anaia den Wali Karzai bertako pastundarren talde armatuak finantzatzen ari dela, CIAren diruaz, hain juxtu. Berak ez du inoiz ukatu, eta CIArekin lan egiten duela maiz baieztatu du.

Gilles Dorronsoro adituak aspaldi ohartarazi zuen estrategia horrek dakarren arriskuaz. "Honelako talde ugari sortzen ari dira, baina kontrolaezin bilaka daitezke epe laburrean. Gainera, talibanen garaipena eragin zuen eskenatoki bera eraikitzen

ari da Koalizioa Afganistanen", azaldu du Zientzia Politikoetako irakasle ospetsuak, aurten argitaratu duen txostenean. Zoroastro eta Avicenaren herria, Somaliaren antza hartzen ari da gaur. Bada, hamar urte betetzera doan gatazka hau gerra zibilaren atari bilakatu da dagoeneko. Gerrak erraz piztu daitezke Afganistanen, baina nekez irabazi. ■

argia.com Afganistandik idatzitako bloga eta diaporamak ikusgai gure webgunean.

AEBek estrategia berriari gogor eusten diote: bertako talde paramilitarrak sustatzea.

"Kontrolaezinak bilaka daitezke; talibanen garaipena eragin zuen eskenatoki bera eraikitzen ari da Koalizioa Afganistanen"



"Egizu zerbait ezberdina,
ZATOK TXURIRA!!!"



Anoeta pasealekua, 24 • Donostia
Tel.: 943 464 404 • www.eltxuri.com



Alizia Casanova Gomez

«Leningraden ginen neskatiloi errenditzeko eskatzen ziguten alemanek»

Gerrako haurra *Habana* itsasontzian sartu zuten 1937an, Espainiako Gerra Zibiletik ihesi. Errusian, Lehen Mundu Gerrak harrapatu zuen eta han Leningradeko (gaur egungo San Petersburgo) blokeo beldurgarria ezagutu zuen. 1961ean, Kubara heldu zen Barakaldoko haurra, bizi berri bat eginez Habanan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero



Hamar eta erdietan ginen etortzekoak, baina, horra!, hamabi eta erdiak ere gainean. Barkatu, andrea! Kubatarren orduan gatoz...

Bai, ongi etorri, berandu etorriagatik ere. Kubako ordua... Ni oso pozik naiz kubatarren artean, ez dut arrangurarik, bikainak dira, baina garaiz ibiltzeari dagokionean kubatarra ez da zuzena. Baina esan, esan, zer jakin nahi zenuten?

Alizia Casanova Gomez zaitugu.

Bai, Barakaldokoa, Sestao ondokoa. 1925eko uztailaren 8an jaio nintzen. Urte mordoa, horratik! Beldurtzeko moduko urte zakukada! 11 urte arte bizi izan nintzen han. Urte gutxi, aukeran. 1925eko uztailaren 8an jaioa, alde egin behar izan nuen 1937ko ekainaren 21ean. Gerra garaia zen Espainian, eta Frantziara eta Ingalaterrara ari ziren sasoi hartan haurrak bidaltzen. Horretan zen gure ama ere, ni Frantziara edo Ingalaterrara bidaltzekotan, baina aita ezetz. Izan ere, gure aita... aita santua baino aita santu zaleagoa zen, Fidel baino Fidel zaleago, eta Marx baino marxistago. "Ez, Sobiet Batasunera bidaliko dugu!", esan zuen. Eta Sobiet Batasunera bidali ninduen. Gorriak ikusi ditut bizitzan... Bi espedizio handi izan ziren orduko hartan: euskaldunak, batetik, eta asturiarrak, bestetik. Euskaldunok ez genuen zori onik izan. Ez zegoen Sobiet Batasunaren eta Espainiaren arteko harremanik eta, beraz, gu jaso behar gintuen ontzia Frantzian geratu zen, zain. Eta gu, *Habana* ontzian sartu eta Frantziara! Hara heldu... eta sobietar ontzirik ez. Eta hantxe izan ginen gu, zain, batek daki zenbat denbora. Frantziarrak berak gu portuan edukitzen nazkatu ziren arte. Orduan, kargaontzian sartu gintuzten, *Southampton* zuen izena itsasontziak, eta Errusiara. Galdetu niri zer jan nuen atzo, eta ez naiz oroitzen. Baina kontuok bai, ez ditut ahaztekoak.

Southampton kargaontzia...

Bai, narras-narras joan ginen, zerrien pare, hantxe sotoan, denak pilatuta, Leningrad-raino! Asturiarrek guk baino zori hobea izan

-30 gradu

"1945ean, gerra amaitu zenean, 'ahal duenak ahal duena' izan zen hura. Leningradeko blokeoa ikaragarria izan zen. 1941-42ko neguak harrapatu ninduen han. Blokeoak 1944 arte iraun bazuen ere! Gogoratzen naiz, ogia ematen zigutela, ogi pusketa bat. Orga batean zekarten ogia, aurretik astoa. Zer gertatu zen, ordea? Astoa jan zutela, gosearen gosez, eta orga erre zutela, su egiteko, nola edo hala berotzeko... Leningraden ez zen egurrezkorik ezer geratu, dena erre genuen, sutarako, berotzeko. Zeropeko 30 gradutan bizi izan ginen!".

Nortasun agiria

Alizia Casanova Gomez (Barakaldo, 1925). 11 urte zituela utzi zuen sorterrria, eta ez da harrezkero bertan bizi izan, ez bisitan itzuli ere. Gerrako haurra da, 1937an *Habana* itsasontzian Frantziara abiatu eta Sobiet Batasunera iritsitakoa. Bigarren Mundu Gerrak harrapatu zuen han, Leningradeko blokeoko gosea eta hotza. Medikuntza ikasi zuen Moskun 1947tik 52ra, eta bertan ezkondu. Kuban zen 1961ean, senarrari (sobietar militarra), jarraika. Hantxe egin du harrezkeroko bizimodua. Sobiet Errepublika Sozialisten Batasuneko Gobernuak emandako domina eta agiria ditu Leningradeko defentsa heroikoan parte hartu zuelako errekonozimendu.

zuten: Frantziara heldu zirenean zain zeukaten sobietarren ontzia. Hartu eta eroso antza eraman zituzten Sobiet Batasunera. Gero, han, barre eta iseka egiten ziguten: "Zerriak ere ez dituzte horrela ekartzen. Kar, kar...".

Barakaldoko bizimoduaz zer oroitzapen duzu?

Aitaz oroitzen naiz, maite-maite-maitea nuen. Biak maite nituen ikaragarri: bai aita eta bai ama. Barakaldon, Tribu Modernoan bizi ginen. Izen horixe zuen, aizul! Tribu Modernoa. Etxe txiki mordo bat zen, denak berdinak. Eta handik gora, baratzeak ikusten ziren. Gure etxeko ataritik gora begira jarri eta aita ikus nezakeen, baratzean lanean. Aita hil zenean -amak kontatuta dakit-, nire izena besterik ez zuen esaten: "Alizia, Alizia, Alizia...". Frontean egon zen, eta, nonbait, hiltorian, etxera bidali zuten. Odola zeriola hil zen, etxean, gerra ostean. Bautista Casanova nuen aita, Josefa Gomez ama. Neba bat izan nuen, ni baino zaharragoa. Hila da. Gerra garaian, haurrak halako adin bat arte baino ez zituzten kanpora bidaltzen. Zaharrenetakoa izan nintzen ni. Neba etxean geratu zen, amaren ondoan.

Eta zu, *Habana* ontzian...

Bai, sufritzen beti. Hara, ontzian bertan hasi nintzen sufritzen, portutik irteten ari ginela. Ilunabarra zen, eta gero eta ilunago, eta gero eta ilunago, eta ni, ontzian, amari eta nebari begira eta agurka. Hantxe hasi nintzen sufritzen. Ontzian dena zen tristura, haurrak negar eta negar ari ginen. Arin joan ginela iruditzen zait, baina denak negarrez, ahal zen lekuan jarrita edo etzanda. "Zertan etorri ote naiz? Zertan bidali ote naute?". Eta sufrimendua eta tristura... Baziren haurrak



senide zirenak, bi eta hiru senide, bata bestearekin borrokan ere bai. Ez nuen inorekin hitz egiten, kokorikatu eta negar eta negar eta negar, ez zen besterik. Frantziatik Sobiet Batasunerako bidaia luzeagoa izan zen. Eta, kargaontzian, berdina zen giroa. Euskaldunak ziren hangoak. Nire kasua ez da bakarra, asko izan ziren lehenengo *Habanan* eta gero *Southampton* ontzian sartu zirenak.

Leningrad jo genuen arte, bidaia handia. Ekainean irten ginenean 11 urte nituen. Itsasoan bete nituen 12.

Leningrad.

Leningraden, ondo! Hori bai, esango dizut: sobietarrak ondo baino hobeto portatu ziren gurekin. Jakin beza jendeak. Esan beza. Ondo baino hobeto portatu ziren. Jendea

Kilikatu Kultura, klikatu euskaraz! 


 **kulturaGernikan.net**
 Kultura batzordearen ataria

www.gernika-lumo-
euskaraz.com

 **gernika-lumo**
 euskaraz

GERNIKA
 LUMO
 gero unitate

gure zain zegoen. Kargaontzian opil moduko bat –“ricci” esaten zioten– ematen ziguten gosaritan, beste bat bazkarian, beste bat aforian. Ikaragarria! Leningrad, ezin hobeto. Oso, oso, oso, oso ondo. Han taldetan banatu gintuzten: Jerson, Jarkov, Odesa, Ukraina... Ni Kievera bidali ninduten, Krimeako hiriburura, Itsaso Beltzean. Ondo jaten genuen, errusiera erakusten ziguten, oso ondo zaindu gintuzten. Zeruan ditut sobietarrak, alemanak ez bezala. Lehengo batean, etxe atarian jarrita nengoela, han non igarotzen den kubatar mulato bat, hizketan, txor-txor-txor. Alemanez ari zen andre-gizon batzuekin. Etxe atariko landareak lorez mukuru ageri ziren, loretan lore!, eta kubatarrek galdetu zidan ea andre-gizon haiei barrura sartzen utziko nien, loreak ikusten. “Bai, jakina! Nongoak dira?”. “Alemanak”. “Faborez, esaiezu oraintxe bertan alde egiteko, alemanek gerran gorriak ikusarazi zizkidatela-eta. Leningradeko blokeoa bizi izan nuen!”. Eta mulatoak: “Arrazoi duzu”. Eta hitz egin zuen andre-gizon haiekin eta aldendu ziren. Ez dut alemanekin ezer nahi, gorroto ditut.

Sobietarrak maite.

Bai. Krimean ezin hobeto hartu gintuzten. Ikasturte hasiera zen, eta han ginen gu, atsedean hartzen, ondo jaten, indartzen... baina, hala ere, tristura! Neska-mutil mordoa ginen Kievera bidalitakoetan. Haurren Etxea osatu zuten, eta hantxe bizi ginen gu. Zuzendaria errusiarra zen; gerrako heroia, nonbait. Gainera, zaintzaila zintzoak genituen. Eta baziren senar-emazte batzuk bidaia gurekin egindakoak: Lupe (Gualupe), eta gizona, Manolo ote zuen izena ez dakit. Maisu-maistrak ziren, adinekoak. Gaztelania erakusten zuten. Gurekin bizi izan ziren etxe hartan. Haien aztarna ere galdu nuen gero. Moskun beste talde bat zen, gurea bezalakoa, eta arestian aipatu dizkizudan herri horietan: denetan ere, Haurren Etxea. Urte batzuk Kieven eta, nik 14-15 urte, Gazteen Etxea egin zuten Leningraden. Hazten ari ginen, bistan da, eta etxe hartan bildu gintuzten herri guztietako gazteok. Eta 1941ean, Leningraden nengoela, nik 16 urte, gerra!

Tragedia.

Tragedia eta erdi! Leningradeko blokeoan eusteagatik eman zidaten domina erakutsiko dizut...

Leningradeko blokeoan izan zinen!

Bai. Badakizu zer egiten genuen? Gosea eta hotza pasa. Tanke fabrikarik handienetakoa Leningraden zegoen. Guk torlojuak desmuntatzen genituen, torlojutxoak. Errusiarrek lanean, eta gu haiei laguntzen. Sobietarrek

Ama ez, 'Josefa'

“Ingalaterra bidez jaso izan nituen familiaren berriak. Amaren lehen eskutitza, hala ere, Medikuntza lehen urtea egiten ari nintzela jaso nuen, 1947an. Eskutitzazalean zer jarriko eta: ‘SESBean diren Espainiako haurren arduradunari’. Eta eskutitza jaso nuen! Eta amak esaten zidan: ‘Alaba hori, eskutitz hau jasotzen baldin baduzu, idatziezadazu honako helbidera, Ingalaterran den lagun honen etxera’. Horrela berreskuratu genuen harremana. Gero, biak izan nituen bisitan, Kuban, ama eta neba. Aita hila zen ordurako. 1937tik 1966ra ez nuen ama ikusi, eta 66an erditzen lagundu zidan. Alaba jaio zen, Natatxa. Ordurako ‘Josefa’ esaten nion amari. Ez zitzaidan ‘ama’ ateratzen!”.

esaten ziguten: “Hartu torloju eta iltzeok, desmuntatu, eta bota hona”. Haiek, gero, piezak hartu, trenean sartu eta Ufa hirira bidaltzen zituzten, tankeak muntatzen zituzten lekura. Eta handik gerrara tankeak! Horretan lagundu genuen guk, zertan lagunduko genuen bestela? Ez genuen modurik! Gogoratzen naiz nola ibiltzen ziren hegazkin alemanak, panfleto botatzen: “Errusiar neskatilak, errendi itzazue zeuen buruak, hori galduta dago-eta!”. Horretaz gogoratzen naiz. Alemanek usteko zuten, nonbait, gerran hasi eta berehala irabaziko zutela. Ez zuten espero gerrak iraungo zuela, gorriak ikusiko zituztela hotzaren ondorioz. Leningraden geratzen ginen neskatilok geure buruak errenditzea eskatzen ziguten aleman haiek! Hura izan zen, hura! 1941ean hasi zen gerra eta hantxe harrapatu gintuen neguak. Hiltzen zen jendearen gainera izotza botatzen genuen, izurriterik izan ez zedin. 1942ko martxoan irten ginen Leningradetik, Bizitzaren bidetik.

Bizitzaren bidetik?

Ladoga lakua da Bizitzaren bidea. Laku ikaragarri zabal handia. Lakuak izoztu egin behar zuten, izotz geruzak halako lodiera jakin bat izan arte, kamioiak izotzaren gainetik lakuko uretan hondoratu gabe igaro zitezten. Bizitzaren bidea! Hala ere, ordurako lau oilo geratzen ginen Leningraden. 1942ko martxoan, azkenean, izotza ondo lodituta zegoenean irten ginen Leningradetik, Bizitzaren bidetik barrena. Blokeoa erabatekoa zen, bide hartatik izan ezik. Gaur egun zoragarri dagoela diote, aisialdi leku paregabea omen da. Hori xe esan izan didate.

Bizitzaren bidetik nora?

Trenak hartzera. Ganadu trenak ziren. Hantxe sartu eta hurrengo geltokian, jendea zain, eltze tzar batzuk prest, zopa beroarekin. Eta gu jan eta jan. Eta hurrengo geltokian, berdin, eta geltokirik geltoki, hegoaldera iritsi ginen, Krimeara. Ondo urruti, gero! 1945ean bukatu zen gerra. Ni, bakarrik, sobietarrez inguratuta, euskaldunak galduta, nire ondoan izan ziren lagunak berri batere ez neukala. Batzuk hona, besteak hara... Moskun gertatu nintzen. 1947a zen, hamabost errepublika Sobiet Batasunean, zein bere zorakeriekin. Ezer ez eta festa! Nik banekien zer edo zer ikasi nahi nuela. “Nor edo nor izan behar naiz bizi honetan, gero?”. Baina hori nahi izanagatik ere, goseak bizi nintzen, eta nola ikasi? Medikuntza ikasten hasi nintzen, azterketarik ezin gaingaituta, ezin estudiantuta, goseak. Ez neukan sudurra eta titia besterik! Iharra, goseak... Medikuntzan izena eman

90 urtetik hur

"Hainbat hispano-sobietarrek Kuban egin genuen bat. Batzuek elkar ezagutzen genuen, baina gehienok ez. Sobiet Batasuneko bateko eta beste hirietako Haurren Etxeetan egondakoak ginen. Eta Kuban elkartu. Dozena bat ginen, ez pentsa askoz gehiago bildu ginenik hemen. Eta Leningraden bizi izandakoak, nire lagun Isabelita eta biok. Basilisa, Inazio, oraindik orain hila... Gutxi gara bizirik, zahartuta gaude, 90 urtetik hurrago, 80tik baino. Duela bizpahiru urte elkartu ginen. Harrezkero, ezer ez".

nuen, hala ere, eta gaintitu ere gaintitu nuen. Ikerketa Institutuan egin nuen lan, pneumologia sailean, tuberkulosia ikertzen batez ere. Institutuak ospe handia zuen eta, ni hartan ari nintzela lanean, Kubatik Moskura mediku espedizio bat izan zen —ospitaleetako zuzendariak eta beste; tartean zen Machado Ventura, hemengo Ikerketa Institutuko zuzendaria, izen handiko medikua Kuban orduan—, eta nik gaztelaniaz banekienez, bisitariekin hitz egin nezan agindu zidaten, medikuntzaz gaztelaniaz hitz egiteko, alegia. Haiekin lan egin nuen, gure pneumologia programa azaldu

AZKEN HITZA

Sobietarren ontasuna

"Sobietarren ontasuna da munduan ikusi dudana guzuzarik handiena. 1941 urtera arte, behintzat. Krimeara udan heldu eta hango kirol eta jolasa, hango eskia, hango boleibola... Sobietarren onberatasuna ez dut ahaztekoa! Kontrara, ezin dut eraman alemanen krudelkeria, Leningradeko blokeoa. Izugarria!".

nien, nola lan egiten genuen tuberkulosiaren kontra, hau eta hura, nik nekien guztia. Gero, 1961ean Kubara bidali ninduten, sobietar militarrekin batera; senarrarekin, esan nahi dut... Espainola nuen senarra, madrildarra. Frantziatik Sobiet Batasunera bidali zuten, eta hantxe ezkondu nintzen berarekin. 1961 hartan etorri ginen hona. Hemen, Moskun ezagututako Machado Venturak hartu ninduen bere Institutuan, tuberkulosiaren kontrako ligan, Ambrosio Grillo ospitalean, Puerto Mayan. Baina laster ginen Habanan, tuberkulosiaren kontra borrokan beti. ■

ARGIA EREÏTEN

Euskal Kulturaren XII. Jardunaldiak

XII Jornadas de la Cultura Vasca



Abenduak 1.	20:00. Algortako Kasinoa.	«GETXOKO IZENAK» liburuaz MIKEL GORROTXATEGIrekin (2. topaketa)
Abenduak 2.	20:00. Udaletxeko Areto Nagusia.	EUSKARA SARIA
Abenduak 3.	10:00 eta 17:00. Piper's.	TRIKIKANTU GOSARIA eta TRIKIMERIENDA
Abenduak 3.	19:00. Satisfegin hasita.	BERTSO POTEOA
Abenduak 4.	20:00. Musika Eskola.	GARIren kontzertua
Abenduak 12.	18:00. Algortako Kasinoa.	ALBE GALA
Abenduak 18 eta 19.	Getxo osoan.	GETXonEGIN II. pintxo lehiaketa

Lurralde marka



z, ez da gauza bera literatura eta komunikazioa. Nahiz eta biek daukaten zerbait batak bestearengandik. Idazle asko dira komunikatzeko eta iristeko premiaz mintzo direnak, eta komunikatzaile zein publizista dezente literaturarekin saiakera egindakoak; azken hauek, beren lana ere artea dela esatera iritsi dira (sormena eta teknika zehatz batzuen erabilerari erantzuten diotela argudiatuz) edota liburuaren izenburua dela slogán adibiderik onena defendatuz.

Baina ez, ez dira gauza bera inondik ere. Literaturak bide luzeagoa du egina komunikazioak baino (maila komunikatibo behinena gaingituz gero, noski), nonahi, eta baita gurean ere. Urteak dira konbentzitu ginela euskal literatura esportagarria zela (hau da, erbestean ere ekarpenak egiteko edo gure tasunen berri emateko gai). Ez dirudi, ordea, hala gertatzen denik komunikazioarekin.

Eta Euskal Herriko erakunde publiko eta enpresa pribatu nagusienetako komunikazio zuzendariak, hau da, komunikazioaren profesionalek, argi dakusate “Euskadin produktua dugu” diotenean, hau da, “badugu zer saldu; ez, ordea, izenik”. “Zer” saldu hori berezia da, “tasun” propioz jantzia. “Tasun” horiek guztiak kontuan hartuta, eta adostasun orokor batera helduta, herri honek bere izena eta izana zehazteko eta aldarrikatzeko eskubidea eta premia du.

Aurki, Espainiako Gobernuako Komunikazio Idazkariarekin izan da estatuko Dircom elkarte (Komunikazio Zuzendaria), eta eskaintza berezia egin diote: Espainiaren markaren gaineko aholkua ematearena.

Albiste hau goiburuetara igo baino pare bat aste lehe-

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

nago, Deustuko Unibertsitatearen baitan herri honetako erakunde publiko eta enpresa pribatu nagusienetako komunikazio zuzendariarekin eztabaida irekia burutu zen lurralde markaren inguruan. Eta, laburpen gisa, arestian aipatutakoa: ez dela behar adina sozializatu komunikazioaren

ekarpena, herri bakoitzak bere identitatea edo nortasuna saltzen jakiteak dakarren onura, batez ere, ekonomiarako, eta hemen produktua badaukagula. Esanaz bezala, egiten jakin badakigula baina saltzen “ez hainbeste”.

Komunikazioaz dakitenek argi daukate. Erbestean saldu behar dute enpresek eta erakundeek ere bai. Nondik hasi?

Krisi ekonomikoa harrapatu gaituen garai honetan, ez da krisiaz eta ekonomiaz baizik hitz egiten. Eta kulturaz? Kultura kritikatik kanpo dago ala? Kultura ez al da ba, baita, ekonomiaren parte?

Kultura aspektu askok osatzen du: literatura, musikak, zinemak... eta baita produktua egiteko moduak, gauzak kontatzeko erak edota herriaren etorkizunaz izan genezakeen ideiak berak ere.

“Herri marka indartsu bat behar dugu” diote komunikazioko profesionalek, gure izaeraren tasunak edo atributuak azpimarratuko dituen, guztiongandik onartua izango dena, erakunde publiko, enpresa pribatu eta komunikazioan adituak direnen bidez eratuko dena, turismoa erakartzeko ez ezik, enpresentzako etekin ekonomikoa lortzera bideratua legokeena, eta lurraldearekiko atxikimendu sentimendua eta harrotasuna sustatuko dituen.

Zeren eta zer da herriaren identitatea, nortasuna, izaera eta izena deskubriarazten duen arrazoia, berezi egiten gaituen kultura ez bada? ■




Literaturak bide luzeagoa du egina
komunikazioak baino, nonahi, eta baita
gurean ere. Urteak dira konbentzitu ginela
euskal literatura esportagarria zela.

Ez dirudi, ordea, hala gertatzen denik
komunikazioarekin



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Oier Araolaza

DANTZARIA

Shanghaiko lezioa

S

ukaldariak eramango zituztenik ez nuen zalantza egiten. Txalapartariekin ez nintzen harritu. Eta dantzariak ere izango zirela aurreikusten nuen. Baina aizue, sorpresa hartu nuen zein dantzari eramán dituzten ikusitakoan. Baita poztu ere.

Joan da Eusko Jaurlaritzako lehendakaria Shanghaiko Erakusketa Unibertsalera, eta Arzak, Berasategi, Aduriz eta Subijana eramán ditu sukaldari lane-tara. Bale, hori aurreikuspenetan sar-tzen zen. Dantzariak ere ohiko apaingarria izaten dira erritual insti-tuzionaletan, eta Shanghaira ere era-mán dituzte. Dantzari tradizionalak gainera, txapela eta gerrikoa janzen dituzten horietakoak. Baina dantza-riek ez dute Loiutik abiatutako hegazkin berean bidaiatu. Idahotik, Ameriketako Estatu Batuetatik joan baitira Shanghaira euskal dantzak eskaini dituzten dantzariak, Boiseko Oinkari dantza taldekoak.

Ez daukat ideiarik ere zein arra-zoik eramán duen lehendakaria Shanghairako dantza taldea AEBetan fitxa-tzera. Pentsatu nahi dut uztailen Boiseko Jaialdian ikusi zituela eta hain maila bikai-nak txundituta hautatu zituztela. Izan liteke, noski, hemengo dantza taldeak abertzaleta-sunarekin lotuta ikusten dituztela eta horri



DANI BLANCO

«

Ez daukat ideiarik ere zein
arrazoik eramán duen lehendakaria

Shanghairako dantza taldea

AEBetan fitxatzera (...)

Arrazoa dena delakoa izanda ere,

ni poztu egin naiz

»

ihesi egin nahi izan diotela. Arrazoa dena delakoa izanda ere, ni poztu egin naiz.

Jakina da diasporan dantzak paper bere-zia jokatzén duela identitatearen formazio-an eta komunitatea trinkotzeko lanean. Eta urteak dira Boisen, Chinon, San Frantzis-kon, Montevideon edo Buenos Airesen Euskal Herrian bertan baino maitasun, indar eta zaletasun handiagoarekin dantzatzen direla euskal dantzak. Baina, itsasoaz bestaldeko dantza-riak Europako dantzari begira bizi dira. Diasporaren konplexuak kateatuta ditu, eta menpekotasunez bizi dute harremana. Euskal dan-tzariek zer egingo duten zain, han ispilua egiten saiatzeko.

Txinan euskal ordezkariaren irudia Boiseko Oinkari dantza tal-dekoei eskaintzea errekonozimen-dutzat hartu behar dute Amerika osoko dantzariak. Aspaldi erakutsia zuten Euskal Herriko beste edozein talde bezain irudi duina —hemengo-ek baino txukunagoa, askotan—, eskaintzen dutela. Euskal dantzetan aditu eta espezialistak dituzte, dantzari bikainak ere bai, eta urte askotako —Oinka-rik 50 urte, esate baterako— ibilbidea. Espe-ro dut, Shanghaiko lezioak dantzari norta-sun euskal-amerikarra sendotu eta ibilbide propioa egitera animatuko dituela. ■

TXANDAN

Castillo Suarez



Ez dakit beste toki batzue-tan hala den, baina nire herrian behintzat, gazte batek —normalean mutila— lana aurkitutakoan egiten zuen lehendabi-ziko gauza autoa erostea zen. Ez bigarren eskuko autoa, auto berria baizik; potentzia handikoa gainera. Herriko lantegietan lana aurkitzea erraz xamarra zenez, eta orduak sartzeko ohitura handia zegoenez, ingurua zilindrada handiko autoz bete zen, kustomi-zatuak eta tuneatuak, bi atekoak, ilunak.

Alabaina, lanik gabe geratu ziren lehendabizikoak haiek izan ziren, institututik atera eta lantegira zuze-

Autorik gabe

nean sartu zirenak. Autoaren maile-gua ordaintzen ezin izan zuten jarraitu, saldu behar izan zuten; erdi prezioan, gainera. Orain autorik gabe

daude, eta salmentarekin diru nahikorik atera ez zute-nez, mailegua ordaintzen jarraitzen dute. Beste per-sona bat erabiltzen ari den autoa ari dira ordaintzen.

Garai berean barre egiten zuten koadrilakoren bat tirriki-tarraka ibiltzen bazen osabaren batek emanda-ko noranahiko edo furgoneta zaharrarekin. Orain bekaizkeriaz begiratzen dituzte, baina ez lirateke horrelako bat hartzera ausartuko, jendeak zer esango ote duenaren beldur. ■

Ekai Txapartegi

FILOSOFIAN DOKTOREA

Biloben maitasuna

Euskararik gabe izan gaitezke euskaldun. Eta euskararik gabe izan gaitezke zoriontsu. Ados. Orduan... ez zaigu funtsezkoa euskarara?

Berlin eta Kay antropologoen *Basic Color Terms* liburua argitaratu zutenetik, duela 40 urte, giza-gogo unibertsalaren tesia gailendu izan da akademian. Azken bost urteetan ordea egoera erabat iraui da. Dagoeneko psikologia kognitiboak eta antropologiak frogatutzat ematen dute hitzek kategoria kognitiboak moldatzen dituztela. Eta frogatutzat ematen da, halaber, hitzek hautematea, pentsamendua eta memorian eragiten dutela. Aberastasun linguistikoa aberastasun kognitiboa ere bada hortaz.

Horrek bere isla du gure sentimenduetan. Umekiek, esate baterako, amaren sabelean daudela bereizi egiten omen dituzte soinua eta hizkuntza. Eta haur jaioberriek berehala bereizten omen dituzte norberaren hizkuntza eta beste hizkuntzak. Haurrak erosoago, lasaiago eta babestuago sentitzen dira ama hizkuntzak inguratzen dituenean.

Aurrerapauso bikainak eman dituzte zientzia kognitiboek azken urteotan ama hizkuntzaren eragin emozionala eta kognitiboa frogatzeko. Eta ondorio honetara iritsi dira: hizkuntza batean edo bestean ez da berdin pentsatzen. Ez



EGOTZ LASA

da gauza bera euskaraz edo Guugu Yimit-hirr-eraz pentsatzea. Izan ere, *mentalese* edo giza-gogo unibertsala gehiegi puztu da. Hizkuntza naturalak ez dira ideia unibertsalen garraiolari hutsak, hizkuntza naturalek pentsamendua transmititzeaz gain pentsamendua moldatzen dutelako.

Eraunsi unibertsalistaren erdian Joxe Azurmendik adibide honekin ilustratu zuen, orain zientzia kognitiboek frogatutzat ematen duten ama hizkuntzaren eragina pentsamenduan: “Gauza bat da koloreak nola bereiztera ohituak dauden eskolako maneran, eta nola bereizten dituzten praxian. Gorringoak ez al duen askorentzat gorria izaten jarraitzen, eta ez al duen segitzen behi gorriak egoten Euskal Herri osoan, eta karaitzak ez al diren oraindik urdinak toki askotan”.

Azken batean, zientzia kognitiboak zera esaten digu: euskararik gabe izan zaitezke euskaldun eta zoriontsu. Baina ezingo zenukete orain zareten euskaldun hauek izan. Beste batzuk izango zinatekete. Beste izaera batekin, beste jarrera eta joera batzuekin, mundua hautemateko, pentsatzeko, oroitzeko eta sentitzeko beste modu batekin. Eta horregatik, hizkuntza kentzen badizuete, zuen bilobek ez zaituztete berdin ulertuko eta ez zaituztete berdin maiteko. ■

« Zientzia kognitiboak zera

esaten digu: euskararik

gabe izan zaitezke euskaldun

eta zoriontsu. Baina ezingo

zenukete orain zareten

euskaldun hauek izan. Beste

batzuk izango zinatekete.

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Da bizi dugun hau. Nekez joanen zaigu aste bat, biktimak hitzaren estalpean mintzo den profesionalaren baten mezu publikoren bat entzun gabe. Ez dira gutxi zelatan bizi direnak, tribunaletara nor eramango xede. Aski da irрати azkarren sintonietan bidaiatu ongi informatuta bizitzeko. Nik harrapatutako azkenak, PSEko Eguiguren zuen ardatz, Batasuneko zuzendaritzaren aurkako epaiketaren bere parte-hartzea zela-eta. Biktima zenbait ordezkatzaren duen elkarteak salatu omen du Batasuneko bailitzan. Eta esatariek berria formalki eman ondoan, hasi dira tertuliano orojakileak honetaz

Biktimen aroa

eta hartaz salaketaren komenigarritasuna baloratzen. Horretan zeudela, elkarteko zuzendaritzako batek hots egin eta zuzenean mintzatzeko aukera eman diote. Eguiguren jaunak egina terrorismoarekin kolaboratzea omen. Kotxea aparkatu eta nire zereginetara egin dut. Bidasoa ibaia nuen begi aurrean, Zabaltza gogoan eta Felipe Gonzalez elkarriketarenak, ezta uretan nola sartu dituztenak danbaka. Ez da posible, ezin liteke errepikakorren musika soilean urtu dut nirea, lanak eskatzen zidan kontzentrazioari atea ireki ezinik. Bakoitza bere minek bizi dute eta konponketaren hastapenetik urrun. Ezin dugu hau ere profesionalen esku utzi. ■

BERTSO BERRIAK

Jexux Mari Irazu

Oroiminari jarriak

DANI BLANCO



Azaroak 10, Memoria Eguna, indarkeriaren biktimen omenez.

I

Azaroa zeren hazi?
Goitik dena dator gazi
hauze falta zen, memoriari
oroitzea galerazi.

II

Alzheimerraren eztena
justu kontrako eskema:
Oroiminaren hasiera da
gogoratu nahi ez dena.

III

Ukatuak, omenduak
bizia emanak, kenduak...
Zauria ireki egin behar du
aitortzaren ukenduak.

IV

X jauna iraganaz
kezkaz eta tripak janaz...
Damu zalantzez hizketan, damu
gehiago hil ez izanaz.

V

Azaroaren hamarra
denboralearen garra
berea eske itsasoa ta
memoriaren indarra.

VI

Memoriaren Egunean
neu ere begirunean.
Ahaztu gabe oroitzekoak
justu biharamunean.

VII

Alde bakarreko grinak
begi bakarreko minak
igual arrazoi izango dute
denak ez dira berdinak.

VIII

Joseba Arregi zena
tortura oihu ozena
gero Meliton ta konpainiak
dute biktima izena.

IX

Ehunka, ez bost ta ez zazpi
hotzikararen argazki
Durangon ere ikusiko da
“Gernika ez zutela aski”.

X

Zenbat gorpu ta arima
behar ditugunak mima
baina lehenbizi argituta zein,
noren ta zeren biktima.

DOINUA: “Oihaneke pagoak blai”.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko katera

Literatura

«Poesia traizionatzen baduzu zure bizitza traizionatzen ari zara»

Hiru lan argitaratu ditu berriki: *Errepidea* (Erein), *Zazpi Orduak* (Elkar) eta *Bitsa* eskuetan (Susa). Narrazioak dira lehen biak. Poesia liburua hartu dugu eskuetan. *Bitsa* eskuetan nola, halatsu joan zaizkigu hitzak, bizitza nola.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Iñigo Azkona



MIREN AGUR MEABE (Lekeitio, 1962) Kiri-kiño Ikastolan aritu zen hainbat urtez. Filologia ikasi zuen garai hartan, ikasle helduekin aritu eta idazteko asti gehiago izateko. 1992tik Giltza argitaletxean aritu da orain gutxi arte: “Zuzendari, edukien egile, itzultzaile, zuzentzaile edo kudeatzaile izan naiz”.

Eskolako eta argitaletxeko garaia osatu ondoren, beste molde batez aritzeko aroa bilatzen ari da: “Zaila da literaturatik bizitzeari. Baina denboraldi batean literaturaren inguruko jardunetan ibili nahi dut: idazten jarraitu, errezitaldiak eman, literatur itzulpenak probatu, ikastetxeetan solasaldiak egin... Akaso, geroxeago, irakaskuntzara



“Nire gaiak igual ez dira garrantzitsuak mundu zabalarentzat, gai sozialik ez dut jorratzen, injustizien salaketarik ez dago apenas. Ez dut esan nahi kezkatzen ez nautenik, baina ez zait ateratzen, eta gainera, ez luke balioko pose hutsak, demagogiak”.

diozu ideia berari, momentuko jarre-
raren arabera: lirikoagoa, ironiko-
agoa, fantasiazkoagoa... Horregatik,
poesia batetik, eta narrazioak beste-
tik. Azken aldian literatura aterpe
izan dut, eta bidean neuzkan materia-
lak amaitu ahal izan ditut.

buelatu. Denboraren jabeago izan nahi dut,
arnasa beste modu batez hartu...” diosku.

Hiru liburu kaleratu dituzu ia batera... Pertsona
metodikoa zara inondik ere.

Metodikoa ez hainbeste, saiatua bai. Libu-
ruak aldi berean kaleratu dira, baina aspaldi
nenbilen batean eta bestean lan eginez, aldiz-
ka. Gertaerek eta bizipenek nola harrapatzen
zaituzten, tratamendu bat edo beste ematen

Miren Agur Meabe poetaz jardun nahi
dut. *Bitsa eskuetan* liburuaz.

Liburuan hiru gai nagusi daude, hiru partetan
banatuta. Lehenengoa, izatearen errepaso
modukoa da, iraganeko bizimoduari agur egi-
tea eta orainari ongi-etorria egitea, errealtate-
ra egokitzea, nolabait. Bigarrenean, amaren
heriotza kontatzen dut, maitasun-aitorpena
eginez. Hirugarrena harreman baten konta-
keta da. Liburuaren alfa –baita kronologiaz
ere, poema hori 2001ekoa-edo delako– lehen



Durangoko Azoka 2010


Argia astekariaren
eta **Luditoysen**
katalogo berria!

*Bisita gaitzazu Goienkale 1,2 eta 3 standetan



Zumeta

aren
artelana
ARGIAren
90. urteurrenerako
Jose Luis Zumetak
egindako artelana.



poema da, *Definizioa*; eta omega, azkena, *Entropia*, aurten idatzia. Bi mugari horien artean garapen bat dago, eta hortxe hartzen dute tokia liburuko deitura guztiek, adibidez.

Poeta Meibi da; *maybe*, agian; Meabe akaso. Mitxu ere bai...

Eta Goikokaleko neska, edo zure alaba, edo Mirentxu, *La jolie fille*... M. A. ere bai, inizialak. Eta *Plaisir*. Lagunentzat Mitxu naiz; segun norentzat, izen bat. Lehen poeman ikerketa bat abiatzen da, "hau ez da kolonia-iragarki bat". Azkenean, berriz, bizitakoak bizi eta gero, esaten da "Plaisir deitu dit norbaitek". Paradoxa polita, esanguratsua, nire koloniaren izena delako. Lehen poeman esaten da "zure inizialak idatziko nituzke"; azkenean, berriz, "M. A. idatzi dut lurrean". Hortxe dago kontrastea: entropia kontzeptuak itzulezintasuna adierazten du.

Edith Piaf-en *La vie en rose* abestiak ematen dio izena lehen parteari. Frantsesa ageri da poemetan.

Gure sasoikoen hezkuntza sentimentalean frantsesak garrantzi handia izan du. Frantsesaren garaiko eskolakoak gara; ingelesaren gorakada geroxeago etorri zen. Trebea nintzen frantsesez... Batzuetan, ligatzeko, fran-

tsesarena egiten nuen, pentsa. Frantziara ikasle joateaz egiten nuen amets. Irakasleak magazineak ekartzen zizkigun, erakargarriak, modernoak, eta diskoetako letrak arakatzen genituen —Moustaki, Ferrat, Brel...—. Lilura sentitzen nuen, erromantikoa eta estilosoak zen... Liburuan, horregatik, ironizatzen balio izan dit. Bizitza arrosa kolorekoa da, baina gaztelaniz esaten den bezala, *rosa palo*.

Latza da zenbaitetan, eta ezin da dena kontatu. Bizi dugun den-dena ez da aipatzekoa, aukeratu egiten dugu zer kontatu, eta nola egin geure erara. Bizipen batzuk aztertzen ditugu, introspektzioa egitea beharrezkoa zaigulako bizitzan kokatzeko. Poesiaren bidez egin daiteke azterlan hori. Neurri horretan, norberaren gogoeta baliagarria izan daiteke irakurlearentzat, identifikatua senti daitekeelako.

Zerk motibatzen zaitu poesia idazteko?

Poesia idaztean, batzuetan emozioak gogoeta bihurtzen dira. Nire gaiak igual ez dira garrantzitsuak mundu zabalarentzat, gai sozialik ez dut jorratzen, injustizien salaketarik ez dago apenas. Ez dut esan nahi kezkatzen ez naute-nik, baina ez zait ateratzen, eta gainera, ez luke balioko pose hutsak, demagogiak. Beraz, zerk motibatzen nau? Neure burua ulertu edo

Gu bertan izango gara, eta Zu?

Nobedade hauez gain,
zozketak, harpideentzat prezio bereziak,
opariak, egileen sinadurak standean, ...

Eta behar duzun guztia azaltzeko
Argia eta **Luditoys**eko lagunak

Bazen behin...

Mundu mailako
jolas ospetsua
orain euskaraz!

bizitza

Jabetu giza
gorputzaren
sekreto guztiez



Noruntz eta nola iritsi?
Zein da bidea?
CAMINOS

3D estrategia jolasa



MIHILUZE
BERRITUA

Froga berriekin
gozatu eta
barre egiteko



Telebistako
programa
arrakastatsuen
edizio berria!

Luditoys

ESKAERAK: ☎ 943 36 86 61 | info@luditoys.com

governatu beharrak, eta horretarako, nigan benetan eragina duten gauzez hitz egiteak. Horixe da zintzotasunaren oinarria, nire ustez.

Poesia medio, biluztu egiten zara neurri batean. Azalaren kodean bezala, honetan ere.

Poesia ispilutzat hartzen baduzu, ezin duzu engainatu. Poesia traizionatzen baduzu zure bizitza traizionatzen ari zara, eta alderantziz... Biluzte edo huste horretaz kontzienteagoa naiz liburu honetan *Azalaren kodea* idatzi nuenean baino. Exhibilizismo puntu bat badudala aitortu behar dut. Orduan ez nintzen horren kontziente, ez neukalako neure burua idazletzat.

Nolatan hori?

Idazle izateko ez da nahiko "idazlea naiz" esatea; besteek ere bihurtzen zaituzte idazle. Editore eta irakurle barik ez zara idazle. Orduan ez nengoen gure literatur sistemaren barruan. *Azalaren kodea* idazteak bakarrik ez, argitaratzeak ere, eman zidan konfiantza eta sekulako indarra. Ordutik hona hamar urte joan dira eta gogoz lan egin dut: ume eta gazteentzako liburuak, nire liburuen itzulpenak, hemen nahiz hemendik kanpo hainbat irakurralditan parte hartu dut. Orain janzten jarraitu behar dut, irakurleekin elkarrizketa lantzen eta probak egiten hurrengo egitasmoetan beste urrats bat emateko.

"Zer diostazu, oro har, emaitzaz? Esadazu benetako bizitza aski den benetako poesia egiteko". Hori da *Geranioaren minipoetika* poeman neure buruari eta irakurleari galdetzen diodana; hau da, nire zerak kontatzen ari naiz liburuan, hemen duzu bitsa eskuetan, bizitza bistan. Baina aski da zintzotasuna poesia ona egiteko? Zalantza itzelak izaten ditut idazten dudana. Balio dio irakurleari? Ba al dago topaldirik irakurlearen eta nire begiradaren artean? Estiloak funtzionatzen du?

Azalaren kodean bezala honetan ere gorpuztasuna eta "tragedia" pertsonalak ageri dira.

Liburu diferenteak dira, baina honetan bada-go haren oihartzunik, beste bizi-parametro batzuetatik azalduta. Gorpuztasuna dela-eta, badakit baten batek esan dezakeela: "Hara, honek aurkitu du trikimailua: bularrak eta bagina aipatu, eta lixto". Kontua ez da hori. Gorpuzta da denboraren igarotzea islatzen duen materia, eta komunikazio fisikoa eta egoera emozionala islatzen duena ere bai. Nahitaezkoa da gorpuzta aipatzea sentsazioez hitz egiteko. Beste aldetik, "tragediak"

bizitzako une txarrak dira, eta liburuan bada-go horiei neurria hartzeko ahalegina. Dena dela, horiei tragedia deitzea erridikulua da Anna Akhmatovaren edo gerrako haurren arazoekin konparatuta, liburuan aipatzen diren adibideak ekartzearren.

"Bitsa oparotasunaren sinboloa da, hedonismoarena, argitasunarena, baina baita gabeziarena, iragankortasunarena eta babes ezarena ere"

Bitsa eskuetatik nola, badoa bizitza ere.

Bitsa paradoxa da: bolumena dauka, distiratsua da, alaitasun kutsua dauka, baina berehala ezereztzen da. Bitsa oparotasunaren sinboloa da, hedonismoarena, argitasunarena, baina baita gabeziarena, iragankortasunarena eta babes ezarena ere. Liburuko hiru ataletan bitsa dago, zentzu bietan: gaztaro galdua, amodio-harreman batzuen aldaketak, maite izandakoen heriotza... Bitsa, bizitza lege, itxuraz asko da, eta une batean ezer ez.

Irudikatzen al duzu sinbolorik gabeko mundua?

Ez. Sinboloak, metaforak, praktikoak dira errealitatea ulertzeko. Eguneroko gauzak ere konparazio sinpleen bidez errazago esplikatzen dira. Halaxe sortu zen liburuko esaldi bat, gerora izenburua bihurtu dena. Lagun bati, nitaz galdetu zidanean, erantzun nion: "Bitsa besterik ez daukat eskuetan". Bitsa eta bizitza hitzen artean hosiakidetasuna dago, gainera. "Min itzela dut eskuetan" da liburuko azken lerroa. Min egiten al du bitsak? Bai. Zer bitsek? Bizi izan eta kontatutakoak, bizitzak.

Asun Landa Mendiberi eskaini diozu liburua...

Momentu eskaseta ikusi nau, lagun ona da, eta sarritan esan dit, kontsolatzearen, "tragediek", lurrikarek, badutela alde ona, idazteko ematen didatelako. Eta egia da, liburu hau min batzuen ordaina da eta.

Hainbat poetaren aipuek tokia dute liburuan. Hona Marina Aoizena: "Pentsatzen dut ate bat dela bakardadea".

Horretan bat egiten dut Marina Aoiz poeta nafarrarekin. Bere poesian natura da giltzarrietako bat. "*Pienso que la soledad es una puerta*" dio poema batean. Hau da, edozein galera, muturrera eroanda, aurkikuntza bat izan daiteke, edo irabazi bat, baina lortzeko, zeharkatu egin behar da egoera bat, hesi bat.

"Batzuetan nahikoa oldoztu bako ekandu erge-la da bizirik segitzea" dio Jose Luis Otamendi-renak. Latza da gero!

Latza eta ederra, baina eskerrak oldozten ez dugun... batzuetan inertziak eramaten gaituela atearen beste aldera, bizitzen segitzeko, bits berrien bila. ■



Biribilko

Bilbo Komertziala



Liburuak

KRITIKA

Akiles eta dortoka.
Seve Calleja.
Alberdania.
120 orrialde. 14 euro.

Helduen literatura

Saioa Ruiz Gonzalez



Heroienak ere garaituak dira

“KANTA EZAZU, oi jainkosa, Akiles peleotarraren sumina...”. Horrela hasten da hain ezaguna zaigun Troiako erasoaren kontaketa duen poema legendarioa. Hari esker ezagutzen ditugu imaginario kolektiboan bizirik dirauten heroi garrantzitsuenen izenak: Akiles, Agamenon, Paris, Hektor eta abar. Aldatzen ikusi ditugu, garai eta testuinguru desberdinetara egokituz. Literaturak mesede izugarria egin dio pertsonaia horien biziraute prozesuari, idazle ugariren sorkuntza lanetarako inspirazio iturri izan baitira. Baina zergatik berreskuratu? Zertarako? Zer da Homerok, Ilioneko gudua aitazki, idatzirik utzi ziguna? *Iliada*, mito bilakatu den heinean, giza esperientzia hizkuntza ulergarri baten bidez adierazteko saiakera bezala ulertu beharra dugu. Horrek ematen dio, hain zuzen ere, historian zehar birmoldatua izateko gaitasuna.

Seve Callejaren *Akiles eta dortoka* eleberria, Homerok landatutako hazi horren fruitu berria dugu. *Iliada*ko pertsonaia zentrala berreskuratu du gureganaino iritsi den mito birmoldatzeko asmoz. Kondairak diotenaren arabera Akilesek, gaztaro heroikoaren eta bizi luze anonimoaren artean lehena aukeratu zuen. Oraingoan berriz, bizi luze anonimo horretarako eta gizon arrunt izateko aukera luzatu zaio gure heroiari. Hala ere, “zaila da, heroia izan eta gero, garaipenaren tentazioa gainditzea” (44. orrialdean).

Zer da, beraz, gizon arrunta izatea? Zertan datza heroikotasuna?

Galdera horien erantzuna aurkitzea izango da Akilesen ikasbidearen funtsa. Tor tor izeneko dortoka misteriotsuaren laguntzaz, hilezko bilakatu duen literatur tradizio bati aurre egiteko ahaleginetan, bilaketa prozesu nahasgarri batean murgilduko da: “Dagoeneko ez dakit nor naizen” (99. orrialdean). Akilesen sumina, existentziako larrimin bilakatu da. Horretan biltzen da gizaki arruntaren ikasbidea: hilkor garela onartzea. Hil ostean ahaztuak izateari beldur diogu eta agian, hortik sor daiteke gizakiaren heroikotasunerako tendentzia. Baina hilkor izatea porrota eta garaipena onartzea da, gizonaren bizitza ezin da bata bestearen aurkako etengabeko lehiaketetan oinarritu. Azken batean, hilkor oro ez da beti garaile, baina hilkor oro garaitua da. Lortuko al du Akiles garaiezinak, bere ikasbidea burutzea? ■

Unibertsoari buruzko mitoak aztergai

Ekain Martinez Lizarduikoak idatzi du *Unibertsoari buruzko mitoak* liburua. Gaiak argitaletxeak plazaratua, kosmogoniak –munduaren sorrerari buruzko mitoak, alegia– dira liburuaren ardatza. Kontakizun sakratuak dira kosmogoniak, eta gizatasunaren funtsa azaltzea dute helburu, liburuan esaten zaigunez. Historia osoan kultura bakoitzak bere

singularitatean landu ditu ikuspegi hauek, baina hala ere, izan dituzte puntu komunak: zerua beti jaingo-jainkosen egoitza izatea, hildakoak luraren azpiko lekuren batera joatea... Zergatik? Nola liteke hori? Giza imaginarioa bakarra ote da? Galdera horiei arrapostu eman nahi zaie liburuko orrietan. ■



Unibertsoari...
E. Mtz. Lizarduikoa.
Gaiak.
192 orrialde.
20 euro.

Gizakiaren izateari buruz ‘Hemen’ aldizkarian


Hemen erlijio gogoetarako aldizkaria da eta hiru hilabetero ikusten du argia, gai nagusi baten inguruan sakontasunez hausnartzera gonbidatuz. Azkeneko zenbakiari *Gizakia nondik eta nora* jarri diote titulu. Joxemari Arzalluz aldizkari zuzendariak sarreraren dienez, burua pentsatzeko duen bizidun orori inoiz otu zaizkion galderak jarri dituzte mahai gainean: Zer da gizakia? Nor naiz ni? Nork sortua ote da gizakia? Itaun horien inguruan dantzan jarri dira Jesus Altuna, Jexus Mari Txurruka, Joxe Arregi, Xabier Pikaza eta Xipri Arbelbide. *Lekukoak* sailean berriz, Iñaki Malaxetxeberria eta Josu Astondoa, Aintzane Ezenarro eta Begoña Gomez mintzo dira, besteak beste. ■



Hemen 27.
Batzen artean.
Hemen.
103 orrialde.
29 euro (urteko harpidetza).

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Era.
Zea Mays.
Bonberenea Ekintzak.
Iraupena: 48'58".
10 euro.

Zalantza guztiak saihesten dituen era

ERREKALDEKO (Bilbo) laukotea aski ezaguna da dagoeneko musikazaleen artean eta ez da hemen deskubrituko talde umil bezain handia dela. Hala ere, seigarren lan honek are eta ageriago utzi du kanta konposatzeko duten jakinduria eta interpretatzerakoan daukaten dikotomia goxo bezain irmoa. Post-rock jostaria (*Zure poxoidura jarraitibideak*) maisutasunez landu dute, baita pop-rock ia orkestrala ere (*Negua joan da ta*); eta jazz giroak uztartu dituzte elek-

tro dantzagarriarekin (*Ibes*), 90eko hamarkadako noisea landu dute (*Ni ban ez banaiz*), baita xamurtasunetik iluntasunera danbateko batekin igaro ere *Hondoratzen* kanta handian. Zer esanik ez, stoner riffen gainean zaldika hasten direnean (*Era, Isolatutako uhartea*), K.O. uzten gaituzte axolagabeki. Bada gehiago, baina hobe da zure kabuz deskubritzen baduzu. Itzela!

www.myspace.com/zeamaysrock

Zea Mays

«Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna»

Gutxiago gehiago al da? Disko honetan abestietan harira zoazte...

Abesti zuzenak eta sinpleek indar handia hartzen dute. Une honetan behar izan duguna zen. Akustikoki funtzionatzen duten abestiak egin ditugu eta gero instrumentu guztiekin handitzen direnak.

"Negua atzean uztea" gogorra izan al da? Hitzetan erreparatuta, badi-rudi atsekabetasuna bizi duzuela, baina hortik indartuta irten zaretela.

Negua bera testualki gogorra izan da, baina diskoa egitea eta bizi izan duguna ere oso polita izan da. Estudioan ia hilabete eta erdi eman eta nekatuta bukatu genuen, lanarekin tartekatuta genuelako. Denbora piloa pasatu dugu moldaketak sartzen, ahotsak, gitarrak, teklatuak...

Aurkezpen kontzertuan, Kukutzan, 1.000 lagunaren aurrean aritu zineten. Profetak zarete zuen herrian? Denbora luzeko lanaren emaitza da?

Ez dakigu profetak garen, baina oso gustura egon ginen eta gau



ederra izan zen. Hamahiru urtean jo eta fuego jotzen eta lan egiten, askok lortu dezakete herrian profeta izatea. Egiten duzuna barnetetik ateratzen baduzu, setatia bazara, ematen du gauzak bere

lekuan jartzen direla. Beste hainbeste egiteko prest gaude, oso gustura gaude egindako bidearekin eta orain ere asko disfrutatzen gabilta.

Lan honetan teklatuak are eta nabarmenagoak dira. Zer giro eta sentsazio lortu nahi izan dituzue?

Morphina disko nahiko zikina zen, gordina. Disko honekin borobiltasuna nahi genuen, geruza ezberdinak, gozotasuna. Horretarako, teklatuak, gitarrak eta ahots ezberdinak sartu ditugu borobiltasun hori lortzeko.

Topikoa da esatea Zea Maysek melodia, indarra eta emozioa batzen dituela, baina egia borobila ere bada. Zein gailentzen da horietatik?

Uste dugu denak *Era* berdinean konbinatzen ditugula, zuzeneko indartsu eta emozioz beterikoak egiten, barruan ditugun gauza guztiak ateratzen eta hori guztia melodiarekin. ■

Ezpalak

JON TORNER

‘Aita artzain zen’. Laxalten
‘best sellerra’ zubereraz



LAXALT FAMILY. RENOKO EUSKAL LIBURUTEGIA


SÜ AZIA zuberera sustatzeko elkarteak *Aita artzain zen* liburua plazaratuko du. Ameriketara emigratu zuen Dominique Laxalt artzainaren bizitzan oinarritutako liburua da, bere seme Robert Laxalt-ek 1957an idatzia. Jatorrizko *Sweet promised land* ingelesezko bertsioa *best seller* bilakatu zen eta ondoren hainbat hizkuntzara itzulua izan da, euskarara, tartean. 1988an argitaratu zuen Elkarrek euskara batuan, Xabier Mendiguren Bereziartuk itzulua, *Dominique, artzain xiberotar bat Nevadan* izenburuarekin. Jean-Pierre Etchebarne mauletarrak itzuli du orain zubererara. Goiko irudian Dominique Laxalt ageri da (eskuinean). Nevadako mendietan pasa zuen ia bizitza osoa eta Euskal Herri-
ra itzultzean zera esan zuen: “Hau ez da orain nire herria, urte gehiegi egin ditut Ameriketean”.

Joan Mari Torrealdaik (Forua, Bizkaia, 1942) jasoko du Lauaxeta Saria, euskal hizkuntza eta kultura sustatu, hedatu eta normalizatzeko egindako lanagatik. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak eman-
go dio saria, datorren abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunen barruan.

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa munduari bira-
ka ibili dira hogeitaz. Herriminak bultzatuta Euskal Herri-
ra itzuli dira *Xentimorik gabe* obra besapean dute-
la. Donostiako Igeldo eta Loiola auzoetan estreinatu
zuten pasa den astean, eta Asier Sotaren zuzendaritza-
pean, Euskal Herri osoan emateko asmoz dira orain.

Georges Rouault

pintore faubista eta espresionistaren (Paris, 1871-1958) 156 obra
daude ikusgai Bilboko Arte Eder museoan. Angela Lamp erakuske-
tako komisarioak azaldu duenez, artista frantziar-
ra oso gogorra zen bere buruarekin eta ezin
izaten zuen lan bat amaitutzat eman. Erljio
munduarekin lotura zuten obrak egin zituen
gehienbat Rouaultek eta *Miserere* grabatu saila da era-
kusketaren oinarria. Parisko Pompidou zentrotik eka-
rri dituzte 156 margolanak. *Georges Rouault: sakratua
eta profanoa* izeneko erakusketa 2011ko otsailaren 13a
arte izango da zabalik.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com

Abarrak

JON TORNER

Hondarrezko kale a(sa)ldakorrak

Las calles de arena. Paco Roca.
Delcourt / Astiberri (2009).
102 orrialde, koloretan.

ZUEI ERE GERTATUKO ZITZAI-ZUEN. Ustez ezagutzen zenituzten kaleetan bueltaka hasi eta desio zenuten lekura ezin iristea. Orientatzeko sena galdu samar daukazuenok sufrituko zenuten inoiz sentsazio deseroso hori: “Jatetxe horrek hemen beharko luke ba!”.

Paco Roca valentziarrak txiribuelta kafkianoa eman dio esperientzia horri. Komikiko protagonistak ezin du bere hiriko Auzo Zaharretik atera. Egunak eman ditu han, bide egoia aurkitu ezinean. Egoera berean daude ezagutuko dituen pertsonaia bereziak, hondarrezko kalee-



tan harrapatuta, surrealismoa eta absurdua nahasten diren istorioetan korapilaturik.

Komikiak ezinegon sortzen du. Ez soilik narrazioa-gatik. Eszenatoki, pertsonaia, sentipen bakoitzari kolore-tonu bat dagokio. Irudi sarri mutuek gidatzen dute kontakizunaren hotzbero, bare batzuetan, itogarri besteetan.

Bada, ordea, esperantzarako tarterik, amets batek patua alda baitezake. Beldurrak beldur, irri egiten dute pertsonaiek, eta irri irakurleak. Irri mapak 1:1 eskalara egiten dituen gizon argentinarraren azalpenak entzutean. Irri, ispiluek bere irudia islatzen ez dutenez, bizarra mozten duen bakoitzean ebakitxo bat egiten duen kondearen ateraldiekin... Umoreak ezinegon arintzen laguntzen du, eta azal surrealista daukaten istorio absurduak humanizatu egiten ditu. Azken finean, edonori gerta dakioken istorioa duzue esku artean.

3. FINALAURRIA

abenduaren 5ean,
GERNIKAKO
JAI-ALAI PILOTALEKUAN
17:30ean

FREDI PAIA
OIHANA BARTRA
BENAT UGARTETXEA
GORKA OSTOLAZA
XABIER ENBEITA
JOSEBA ARTZA

Gai-emolea:
ZURIÑE IARRITU

BIZKAIKO
BERTSOLARI
TXARPAKOTA 2010

Bizkaiko
BFA DFB
bbk
GERNIKA

LAGUNTZAILEA

ANA ZAMBRANO

GAIZKA IROZ

LIPAR ----- MOLUSKU OSO PREZIATUA	↓	PERTSONAIA- REN ABIZENA ----- TIK-..., ERLOJUA	↓	SOLAS-GAIA, ESAMESA		GAUZA IROZ	MAKILA LODI ----- TUBERKULUA	↓	BI AHOKO GANIBET ----- TRIPAKO MINA	↓	DUT ----- TXINTA EGINEZ	↓	
DEREKU, GAITZESPEN ----- ATSEGIN	→							EURI-JASA ----- PERTSO- NAIAREN IZENA	→				
↓				OIHAL FIN ETA GARDEN ----- UME, SEIN		↓	 BEHINKA, NOIZEAN BEHIN ----- GARAIA	→	↓				
NITRO- GENOA ----- (ETA ABAR LABURDURA)	→	LAPURDIKO UDALERRIA ----- HAUSKOR, ETENKOR	→							BIHOZMIN, NAHIGABE ----- MIKROME- TROAK	→		
↓				ARRISKU SEINALEA ----- ARKUAK MARRAZTEKO TRESNA	→						KONTSONAN- TE BIKOITZA ----- KAFEA HARTZEKO	→	
GORESMEN	PIKONDOA- REN FRUITU ----- DEITORE, AUHEN	→				SAILEZ SAIL ----- ZATI GUZTIZ TXIKIA	→					TXERRIKI	
↓								ESNEA BILTZEKO ONTZI ----- UKAPENA	→				↓
ERNALKINAK ERAUZI ZAIZKIONA ----- EUSKALTEGI SAREA	→				DUDARIK GABE ----- LANDARE MOTA	→				GAR ----- DAGOEN	→		
↓			PIPA BATEN EDUKIA ----- NOTA BOKAL BARIK	→								500 ----- KILOGRAMO	→
EDONON, NONGURA ----- SARETA	→					ALDERAN- TZIZ ----- NEWTON	→						↓
↓									ALFER	→			

AQUARIUM



Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



AQUARIUM

	I	A					M	H	D
O	S	T	R				P	A	T
	T	A	B				T	R	X
L	A	K	E	T			N	O	I
E	N	L	U	H	S		O	I	Z
	T	A	B	A	L	A	R	M	A
			P	I	K		S	A	I
L	A	U	D	O	R	I	O	K	A
A	E	K		P	I	Z	I	K	A
	N	O	N	A	P	I	A	K	A
P	E	R	T	S	I	A	N	A	G

argia 2011ko egutegia

Salgai
dagoeneko!



EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

- Hausnarketa labor ospetsuak
- Jai egunak
- Egun seinalatuak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

EGUTEGIA

8,50€



BURNIZKO
EUSKARRIA


5€

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Dirua ez da iristen Hubble teleskopioaren ordezkorako

QUANTUM.BLOGSPOT.COM



JWST teleskopioaren atal bat izango da hau.


JAMES WEBB espazio-teleskopioa (JWST) NASAk eraikiko duen mota horretako bigarren teleskopioa izango da. Izpi infragorrien bidezko ikusmena izango duenez, unibertsoan sortu ziren lehen galaxiei buruz gehiago jakiteko balioko du.

Berriki egin den txostenaren arabera, ordea, 2008an estimatutako 5.000 milioi dolarrek motz geratuko dira teleskopioa egiteko, eta gutxienez %30 gehiago beharko da. Antza denez, arazoa ez da alderdi tekniko edo zientifikoen garestitzea, proiektu osoaren kudeaketa txarra baizik. Proiektuak NASako Astronomia Sailaren aurrekontuaren %40 xurgatuko duenez, ez dirudi NASAtik bertatik falta den dirua aterako denik. Bitartean, Hubble teleskopioari bizitza luzatu zioten joan den urtean, astronauta estatubatuar batzuek egindako konponketari esker. 2014ra arte iraungo omen du; ordurako prest izango da JWST?

Berandu afaltzeak gizentasuna eragin dezake

OHIO-KO UNIBERTSITATEKO (AEB) Laura Fonken eta Randy Nelson ikerlariak behatu dute gauez argiaren pean dauden saguak gauez ilunpean daudenak baino %50 gehiago gizentzen direla, itxura batean guztiek antzeko janari kantitateak jan arren.

Gaueko argitasunak desordutan jatea eragiten bide die saguei, eta horrek gizentasuna eragin, ohiko orduetan jateak ez bezala. Beste proba batean, ikerlariak argiaren pean eduki zituzten sagu batzuk, baina janaria ohiko orduetan baizik ez zieten eman. Haiek ez ziren loditu gauez ilunpean zeudenak baino gehiago. Hala, ikerlariak uste dute gorputzak era desberdinean metabolizatzen duela une batean edo bestean jandakoa. Zehatzago esateko, gaueko argitasunak metabolismoan parte hartzen duen hormona bati eragin diezaiokeela pentsatzen dute.



MALLINALTZIN-CC BY SA

Proba hauek gizakiarekin egin nahi dira; bitartean, saguekin gertatutakoa estrapolatuz ondorioztatu daiteke berandu afaltzeak edota gauez lan egiteak metabolizazio desberdinetara eramán gaitzakeela, gizentasuna eraginez.

NN Serpentis sistema, billar kosmikoa

Lurretik 1.670 argi-urtera dagoen NN Serpentis izar-sistema ikusgarria da. Bi izar koloretsuk osatzen dute sistema, bata gorria eta bestea zuria, eta elkarrekiko biraka ari dira billar boleak egiten dituzten antzeko mugimenduekin. <http://ttiki.com/19525> (Frantsesez)

Minaren aurkako pastillek antzutasuna eragin dezakete

Haurdun dauden emakumeek minaren aurka parasetamola, aspirina edota ibuprofenoa hartzen badute, erditutako umea mutila izanez gero, honek antzutasun arazo larriak izan ditzake, Danimarkan, Finlandian eta Frantzian egindako azterketa baten arabera. <http://ttiki.com/19526> (Frantsesez)

Super-eroankortasuna eta magnetismoa elkarrekin ematea lortu dute

Super-eroankortasuna elektroiak oztoporik gabe mugitzea da. Eremu magnetikoek eragotzi egiten dute hori, baina Rice-ko eta Cornell-eko unibertsitate estatubatuarretako ikerlariak bi gauzak batera existitzea lortu dute, sistema berezi baten bidez. <http://ttiki.com/19528> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Olibondoaren burla

LILURA ERAGITEA DA baratze bat sortzerakoan kontuan izan ohi dugun helburu nagusietakoa. Baratzea ez da soilik barazkitza. Geure baratzeetan barazkiekin batera sendabelarrak, loreak, fruitu arbolak, espeziak, landare mitikoak... izan izan dira. Baratzean etxeko premia guztiak asetzeko landareak elkarrekin bizi dira, baita lilura etiko edota estetiko soilarako daudenak ere...

Lilura, ordea, norbanakoarena da eta baten-tzat lilura gozoa dena, beste batentzat sagardo mindua da. Gaur nik min dut. Min ikaragarria.

Izeba zenak bere gorputza ikerketarako eman zuen eta hil zenez geroztik Leioako Medikuntza Fakultatean izan da. Denbora bat igaro ondoren gorpuak erraustu eta unibertsitateko Arboretum-ean dagoen *Bizitzaren Basoa* deituriko eskulturari jasotzen dira. Ekintza xume honetan izan gara gaur senide batzuk, izebaren eta bera bezalako berrogeiren baten gorazarre. Hortxe piztu da puska batean utziko ez nauen mina. Basoa irudikatzen duen burdinazko eskulturaren erdi-erdian olibondo zahar bat landatu dute, *Olea europaea*. Mundu guztiko zuhaitzen bilduma izan nahi duen basoaren gailur gure kultura kolonizatuaren irudi nabarmenena jarri dute. Gure izaera atlantiarra etengabe zanpatzen duen olatu mediterraniarra eta ia guda guztien ama diren erlijioen, geurean



EHUK UTZIA


Bizitzaren Basoa eskultura, EHuren Leioako campusean.

eliza kristauaren eredu den olibondoa nagusi. Hagi-nak (*Taxus baccata*), haritzak (*Quercus robur*) edo Lizarrak (*Fraxinus excelsior*) behar lukeen tokian olibondoa. Izorrai! Gure kulturaren paisaiatz, gure etxearen premiez zer jakingo dute, noski, unibertsitatearen eskariz baratze hau diseinatu zuten Borian Christova Dontcheva, Miguel Rodríguez Rivas, Peter Nicolov Dontchev eta Oscar Rubén Torres López jaun-andereek.

Ildo beretik, gaurko ekintza xumean harrera, emailen aipamena, medikuntza ikasleen eskertza, departamentu buruaren hitzak... den-dena gaztelera hutsez izan da. Lau hitz ziztrin izan ezik. Irainaren ospakizuna izan da, non eta arrazoiaren, errespetuaren eta elkarbizitzaren habia omen den unibertsitatean. Etorkizun ederra... Beste izeba batek esaten duen eran: lotsagabeentzat mundua!

6

Sei egunez behin landare berri bat aurkitzen dute Amazonian. 1999 eta 2009 urteen artean 637 landare berri eta ia beste hainbeste animalia topatu dituzte. 6.700.000 km² ditu bederatzi estatuk osatzen duten Amazoniak: Venezuela, Bolivia, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Guyana, Guayana Frantsesa, Surinam eta Peru. 320 aldiz Euskal Herriaren azalera duen oihan horretan munduko espezie ezagunen hamarretik bat bizi da.



WWW.GIZZETDAWSON.COM.BR

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Munduko libururik handiena



WWW.BIRMANIALIBRE.COM



WWW.BDCBURMA.ORG



Ezkerrean, Mindon Min (1808-1878) Birmaniako erregea. Erdian, haren aginduz eraikitako liburu eskergaren "azala"; marmolezko orrialde bakoitza horrelako eraikin txuri banaz estalita dago. Eskuinean, orrialde horietako bat.

BIRMANIA (EGUNGO MYANMAR), 1860KO URRIAREN 14A. Mindon Min Birmaniako azkenaurreko erregearen aginduz munduko libururik handiena eta astunena idazten edo, hobe esanda, eraikitzen hasi ziren Mandalayko errege jauregitik hurbil. Mendebaldera hainbat bidaia egin eta gero, Mindon Minek erresuma modernizatu zuten teknologiak eta metodoak eraman zituen eta, hala, biztanleen bizi kalitatea hobetzea lortu zuen. Horrez gain, Kuthodawko urrezko pagoda Theravada budismoaren ohorezko obra monumental batez osatu nahi izan zuen. Budismoaren adar horretako printzipioak Paliko Kanon edo Tipitaka izeneko lanak jasotzen zituen, baina ordura arte printzipio horien transmisioa ahozko tradizioaren eta idatzi bakan batzuen bidez egin zen. Erregeak marmolezko harlauzetan bilduko zuen obra osoa.

Tipitakaren egungo paperezko edizioek 12.000 orrialde inguru izan ohi dituzte, 40 liburukitan banatuta. Mindon Minen edizioak, aldiz, 152 zentimetro luze, 106 zentimetro zabal eta hamabi zentimetro lodi diren marmolezko harlauzek osatzen

dute. Harlauza bakoitza alde bietatik dago idatzita eta, hala, lanak 730 harlauza eta 1.460 orrialde ditu.

Marmola Zagyin muinoko harrobitik erauzi zuten eta Irrawaddy ibaian behera ontzi txikietan garraiatu zuten Mandalayraino. Idazlarietako testuak arreta handiz kopiatzen zituzten harrian. Ondoren eskultoreek letrak banan-banan zizelkatzen zituzten eta, azkenik, ildoak urrezko tintaz betetzen zituzten. Idazlari bakoitzak hiru egun behar zituen orrialde bat kopiatzeko eta zizelkatzaileek aldiz eguneko hamasei lerro besterik ezin zuten egin. Harlauza bakoitza gordezko tenplu txiki zuri bana eraiki zuten, guztira 730. Liburuaren orrialdeak eraztunetan antolatuta daude, erlojuaren orratzen zentzuan.

Ia zortzi urte behar izan zituzten lanak burutzeko eta, azkenean, 1868ko maiatzaren 4an, liburu monumentala publikoari aurkeztu zioten. Mindon Minen esanetan, Theravada budismoaren printzipioei bizirik eusteko liburuak gutxienez 5.000 urte iraun behar zuen. Zereginarekin betetzeko 4.850 urte besterik ez zaitzkieko geratzen.

Arrastoak

Venusen eta Erromaren tenplua zaharberrituta

ADRIANO ENPERADOREAK K.o. 121. urtean eraikiarazi zuen Venusen eta Erromaren tenplua bisitarientzat berriro zabaldu dute, ia 30 urtez zaharberritze lanetan aritu eta gero.

Koliseotik metro gutxira dagoen tenplua Erromatar Inperioko hiriburuko tenplurik handiena izan zen bere garaian, baina higadurak kalte handiak eragin dizkio.

Berritze lanei esker, tenpluaren jatorrizko bi ziegak, Venusi eta Erromari eskainitakoak, mendetan horma batek bereizita egon direnak, berriro batu dituzte. Horrez gain, hautsitako eta higatutako zenbait horma berregin dituzte, zimenduak indartu dituzte eta eremuaren isurbide sistema hobetu dute filtrazioak eta lur mugimenduak saihesteko.



WWW.PICASAWEB.COM

Venusen eta Erromaren tenpluaren arrastoak zaharberritze lanak amaitu baino lehen.

Mahastizaintza krisian

Ardo ekologikoaren aukera sasoi beltzean

Mahats ekoizpenak behera egin du, baina mahats kiloa gero eta gutxiago ordaintzen dute ardogile handiek. Ardoaren burbuila lehertu den honetan, sektorearen arazoak azaldu dizkigute Cándido Besa upategian. Ardo ekologikoa eta salmenta zuzena dira euren marka. Liberalizazioa gertu dago eta sintzeroak dira: “Ez dago beste irtenbiderik irautea baino”.

URKO APAOLAZA / DANIEL UDALAITZ

Argazkiak: Axier Lopez

TOLONOREN gerizpean dago jarrita Eskuernaga, biztanleko upategi gehien duen Arabako Errioxako herria (43 upategi, 318 biztanle). Eskuernagan –edo Villabuena Araban, Euskaltzaindiaren onomastikaren arabera– ate bakoitzean Errioxa jatorrizko deituraren (DJ) plaka eza-guna ageri da, eta udazkenean traktoreen soinuak puskatzen du mahas-

tien lasaitasuna. Mahatsetik eta ardotik bizi den herriaren paradigma da Eskuernaga. Han dute egoitza ardogile sonadun askok: Luis Cañas, Izadi, Arabarte... bai eta beste upategi txiki ugari ere. Mahastizaintzak bizi duen krisiaren berri ederki asko dakite han. Izan ere, Ebroko urak harro datoz aspaldion, are gehiago Errioxako Elkarte Interprofesiona-

lak joan den martxoan mahatsari prezioa oraindik gehiago jaisteko ateak ireki zizkionetik.

“Nik emango diot bonbari eta zuk heldu goitik!”, “Tira tira!”. Cándido Besa upategian joan etorrian dabiltza bertakoak. “Orain mahatsa barruan daukagu eta bonbarekin ardoa homogeneousatzen dugu, bada-kizu, tenperatura, kolorea, lega-





Estibaliz Besa eta Lorentzo Gorroño, Eskuernagako Cándido Besa bodegako mahastizain eta ardogileak.

miak...” dio Estibaliz Besak. 1940 inguruan sortu zuen bere aitak upategia eta egun ia bederatzita hektarea dituzte ardotarako, 60.000 botila produzitzeko adina. Upategi txikia baina dinamikoa da, ardoa zuzenean saltzen die bezeroei eta ardo ekologikoa eta autorekoa egiten dituzte.

“Interprofesionala urte askotako gure erreibindikazioa izan da –azaldu du Lorentzo Gorroñok– eta suposatzen da egin beharko lukeena dela gutxienez mahatsari prezio minimoa jarri, esan ‘mahatsaren produkzio kostua hau da’, hori gutxienezkoa da”. Gaur egun, kalkulatzeko da mahats kilo bakoitzak ekoiztea 0’62 zentimo euro kostatzen dela, baina produktoreari 0’40 besterik ez zaio ordaintzen. “Hemen numeroak ez dira ateratzen eta lau edo bost urtean mahasti askok hondoa joko du. Lehen urte onak eta txarrak izaten ziren, baina orain konturatu gara luzerako direla txarrak”.

Ardogile handien eta Errioxako ardoa erregulatzen duten erakun-

deen jarrerak lortu du, mahastizaintzako sektore heterogeneoa kalera baturik ateratzea, eta manifestazio jendetsuak egin dira Logroñon, sindikatuek deituta. Besaren ustez, upategi handiak “krisiaren izenean aprobetxatu dira”, are gehiago lehengo sektorea bezalako kolektibo ahul batekin: “Nekazal munduan indibidualismo handia dago. Oso gaizki gaude, baina ez gara elkartzen presioa egiteko, ez dago kulturari hori, baina elkartu beharko ginateke mahatsari prezio duin bat jartzeko behintzat”.

Ardoaren biharamuna

Espainiako Ardoaren Merkatuko Behatokiaren arabera, ardoaren kontsumoak %10 egin du behera, baina Europar Batasunaren esanetan ardo ekoizpena gehiegizkoa da Espainiako Estatuan –38 milioi hektolitro– eta ekoizpen hori “arrazionalizatzeko” mahastiak kentzea bultzatzen ari dira. Urte luzetan, oso bestelako politika sustatu izan da ordea: “landatu eta landatu, hortara eraman gaituzte eta

orain dator buelta” dio Gorroñok. Cándido Besa upategikoek ardoa elaboratzen dute sikiera, baina asko dira lehen ardogile izan eta lanbidea utzi zutenak mahatsa upategi handiei saltzeko, batez ere 2000. urtean kiloko prezioa 400 pezetan (2,4 euro) jarri zenean, izotzak jo zuelako: “Jendeak pentsatu zuen, ni hemen aberastu egin behar naiz”.

Errioxako Kontseilu Arautzaileko presidente Victor Pascualek garbi esan du esportazioaren beherakadari aurre egin eta merkatu zatiari eusteko “ardo onenak” aukeratu behar direla. Ildo horretan, Kontseilu Arautzaileak mahats kartilla edo errendimendua %10 jaitsi du, beste behin ere, eta azken hamarkadan %45 jaitsi da ekoiztu daitekeen mahats kopurua, mahastizainak are egoera larriagoan utziaz. “Errendimendua jaitsiko dute, baina jatorrizko deiturari atxurkada bat geratzen zaio”, Gorroñok ahobizarrik gabe hitz egiten du urte gutxi barru ardoaren sektorean gerta litekeen liberalizazioaz: “Liberalizatzen den mo-

GORROTXATEGI



Egile Turroiak

Gorrotxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrotxategi

www.gorrotxategi.com

Mahats biltzaileak, piramidearen oinarrian

Maroko hegoaldetik omen dator. Melillatik pasa zen penintsulara eta kotxe bete trastez itzuliko da bere herrira, "Jainkoak nahi badu". Ea kamerak argazkia paperean botatzen duen galdetu du, oroigarria poltsikoan sartzeko gogoz geratu da. Urtero etortzen da sasoi honetan, eta urtero ostatatzen dute etxe berean. Mahats biltzailea da.

"Aurreko urtean 11 *pela* ordaindu zieten somara, aurten berriz 7,5. Laster nor etorriko da mahatsa biltzera? Mafia pila bat dago, portugesak ekartzen dituzte europarrak direlako, baina mafioso baten pean egoten dira eta egunero bederatzi ordu lan egiteagatik 35 euro kobratzen dute". Lorentzo Gorroñok garbi du mahastizaintza jasaten ari den krisiaren ondorioak zuzen zuzenean jasaten ari direla mahats biltzaileak. Negozio



honetako talderik zapalduena dira, kasu askotan kontraturik gabe egiten dute lan, immigranteak izan ohi dira, handik hona dabiltzan jornaleroak.

mentuan, zer pasako da *mamotreto* guzti hauekin? Zer ari dira defendatzen, ekoizleek behera egin eta haiek mahastien jabe izatea? Oraingo upategi handiek ez dute ez mahastirik, ez traktorerik ez ezer. Hori da kontua".

Baina ardoaren sektorearen ajeak urrunago doaz, eta adreiluaren krisiak burukominak ematen ari zaizkio. Eskuernagan, eraikin bat nabarmentzen da beste guztiengandik: Viura luxuzko hotela. Berrikitan ireki dute, lau milioi euro gastatu ondoren. Horrelako hotel, bodega-museo eta arkitektura obra ugari zabaldu izan dituzte urteotan Arabako Errioxan, eraikuntza enpresek ardogintzan begia jarri zuten zeroztik. Baina higiezinaren krisiak estu utzi ditu horietako asko; batzuk salgai daude eta beste askok ordainketak eten dituzte. Noiz lehertuko da burbuila?

Mahats ekologikoa eta etiketarik behar ez lukeen ardoa

Nola egin diezaioke aurre produktore txikiak egoera horri? Zein da alternatiba? Lorentzo Gorroñoren hitzetan "egin dezakegun gauza bakarra da kalitate oneko ardoa egin eta gurearekin jarraitu, bezeroarekin harreman zuzena izaten". Cándido Besa upategia ABRAko (Arabako Errioxako Upeltegien Elkarte) bazkide da; era berean, bezeroak dituzte Euskal Herriko hainbat txokotan, eta Lurrara bezalako ferietan ere egiten dituzte salmenta zuzena lortzeko kontaktuak. Horri esker lortu dute orain arte irautea. Dena den, "gu ez

gara marketinlariak" diote, "garbi dago bitartekariak kendu behar ditugula, baina horrek ez du esan nahi salbatuko gaituenik". Hain zuzen, marka ekologikoaren merkatua helduleku aparta izan liteke, zabaltzen ari baita eta erantzuna behar du.

Upategiko komedorean ENEEK nekazaritza ekologikoaren kontseiluko enologo batzuk laginak hartzen ari dira hartzidura prozesuan dagoen mahats ekologikoz egindako muztioetik. "Ardo ona espero da, ematen du baremo guztiak ondo daudela —dio Estibaliz Besak—. Aurten mahatsa oso ondo zegoen, gogorra, usteldu gabea...". Zazpi urte dira ardo eko-

"Lehen urte txarrak eta onak zeuden, baina orain konturatu gara luzerako direla urte txarrak"

logikoa egiten hasi zirela eta jadanik hektarea eta erdi modu horretan dute jarrita ofizialki, besteak beste *Espinal* mahastian. Lurrak lau urteko prozesua behar du kutsaduratik garbitzeko eta epe horretatik aurrera eraman dezake bertako mahatsarekin egindako ardoak ekologikoaren zigilua. Cándido Besa upategiko arduradunen ustez aurreiritzi asko dago ekologikoaren inguruan, esaterako, garestiagoa izan behar dela. Baina euren kasuan ez da horrela, Gorroñok azaldu duenez "mahats ekologikoa produzitzea ez da gares-

tiagoa, garestiagoa edo merkeagoa izaten da kantitatearen arabera, etiketatzearen kostuengatik".

Eskuernagan lau upategi hasi ziren ardo ekologikoa produzitzen, baina gaur egun bi besterik ez dira zigilu horren pean ateratzen. Dena den, badira upategiak, ofizialki ez bada ere, ardo ekologikoa produzitzen dutenak. Estibaliz Besa eta Lorentzo Gorroñoren ustez horretara jo behar da: "Ez litzateke ardo ekologikoa etiketatu behar, konbentzionala baizik" diote. Beraiek ardo ekologikoarekin hasi ziren ikusi zutelako produktu kimikoekin erabat ari zirela lurra kutsatzen: "Orain 40 urte ez zen horrelako ezer botatzen, gero, bat-batean sartu ziren ongarri kimikoak, eta lurra analizatzen baduzu desoreka pila bat ditu. Lurra hiltzen ari gara, eta zaindu egin behar dugu pixka bat. Gurea, hautu ideologikoa izan da". ■



UEMA

Hogei urte ibilian lege babesik gabe

Datorren urtean hamarkada bi beteko ditu UEMAk, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak. Harrezkeroztik haziz joan da etengabe, baina zailtasunez beteta aurkitu du bidea maiz. Espainiar legediak jarritako oztopoak aski ez, EAJrekiko harremanak normalizatzeke ditu oraindik UEMAk, eta horrek traba bat baino gehiago egin dio. Azken hata ematear den legegintzaldi honetan gehiago izan dugu bigarrenetik lehenengotik baino.

UNAI BREA

1991N ABIATU ZENETIK, itsaso zakarrean ibiltzea egokitu zaio UEMArekin ontziari. 1988an, EHEren ekimenez, Euskararen Erabilpena Normaltzeko Udal Arautegia onartu zuten hainbat udalek. Hala sortu zen Udalerri Euskaldunen Mugimendua, hiru urte geroago, Aizarnazabalen egindako ekitaldian, UEMA bihurtu zena. Helburua gaurko bera zen: herritarren bizitza sozial guztia, publikoa zein pribatua, euskaraz izan dadin bideak urratzea. Udal haien jarduna, noski, euskara hutsezkoa izango zen aurrerantzean. Mankomunitateko kidea izateko baldintza bi bete behar ziren: hala nahi izatea eta biztanleen %80, gutxienez, euskalduna izatea. Geroago, Eusko Jaurlaritzak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia argitaratu zuenean, %70era jaitsi zuten muga, planak ezarritako tarteenkin bat egitearren hain zuzen.

UEMA sortu zuten lehenbiziko hamasei udal haiek ez zuten helduleku gehiegirik legedian, eta gaur egungo 59ek ez dute orduan baino gehiago. Izan ere, UEMA jaio orduko Espainiako Konstituzio Auzitegiak ebatzia zuen funtzionamendu elebakarra lege kanpoko zela, ele hori euskara izatekotan noski. 80ko hamarkadaren erdian, aipatutako

Auzitegiak Konstituzioaren aurkakotzat jo zuen EAEko Euskararen Legearen 8.3. artikulua: “Udalaren gizarte-hizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kalte-tango gerta ez dedinean, herri-agintariek, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskara bakarrik erabili ahal izango dute”. Argitu beharrik ez dago “elebakar”, “euskara bakarrik” eta abarrek ez dutela errealita-

“Guk euskara hutsez funtzionatuko dugu, legeak baimendu ala ez, hizkuntz eskubideak legearen gainetik daude eta”

**JON BOLLAR,
UEMAKO PRESIDENTEA**

tea islatzen: gaztelania hiztun elebakarren eskubideak guztiz bermatuta daude, Hego Euskal Herri osoan bezala, UEMako herrietan ere. “Euskaldunak ez direnen biztanleen kexarik ez dago”, azpimarratu du Jon Bollar Aulestiko alkate eta UEMako presidentea. Aitzitik, UEMako herritarrek ez dute bermatuta zerbitzu guztiak euskara hutsez jasotzea, dena ez baitago udalaren borondatearen menpe.

Nafarroan are gutxiago eskaintzen du legediak: eremu euskaldunetan euskara ofiziala izatea, hori bezain lausoa izan da eta da herrialde horretako UEMako kideentzat lege-bermea. Praktikan, zorioneko 8.3 artikulua haren filosofiari eutsi zion mankomunitateak, oraindik eusten dion bezala. Jon Bollarren berbetan, “guk euskara hutsez funtzionatuko dugu, legeak baimendu ala ez, hizkuntz eskubideak legearen gainetik daude eta”.

Lege babesaren lortzeko ahaleginak

Ez dezala inork interpretatu UEMAk legearen babesik bilatzen ez duenik. Mankomunitatearen hastapenean haren aholkulari juridikoa zen Iñigo Urrutiak dioskunez, 90eko hamarkadan hainbat aldiz eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari udalerri euskaldunentzat nolabaiteko estalki juridikoa sortzea, baina alferrik. 2000. urteak beste kolpe bat ekarri zien: estatuko abokatuak helegitea aurkeztuta, Espainiako Auzitegi Gorenak lege aurkakotzat jo zituen UEMaren estatutuak.

“Argudio nagusia zen mankomunitateak obrak edo zerbitzuak eskaintzeko eratu behar direla, eta euskara ez dela ez obra ez zerbi-



UEMAK UTZIA

tzu”, azaldu digu Jon Bollarrek. 2008an estatutu berriak egin zituzten eta udalez udal onartu, baina bitartean herri bat baino gehiago geratu zen UEMAn sartu ezinik, horretarako eman beharreko pausoa udalbatzak mankomunitatearen estatutuak onartzea baita. Bide batez esateko, 90eko hamarkadan ere UEMAn sartzea galarazi zieten udalerri batzuei, nahiz eta orduan, jakina, argudio legalak beste batzuk ziren. Bitxia da hala ere, bai 2000. urtea baino lehen bai ondoren, udalerri asko inolako trabarik gabe

bihurtu direla UEMako kide. Bollarren ustez, “estatuko abokatuak aleatorioki aukeratzen du zein udalerriren aurka jo”.

2008an onartutako estatutuetan Auzitegi Gorenak leporatu ziena konpondu zuten: UEMak hainbat zerbitzu eskaintzen ditu orain. Horietako bat, etorri berriak integratzekoa. “Azken urteetan gero eta gehiago dira udalerri euskaldunetara oso urrutitik etorritako pertsonak, eta oro har, ez zaie jakinarrastzen bertako errealitatea zein den. Euskal kulturatik edo euska-

ratik at uzten dira”, azaldu dute. Etorri berri horiek euskarara erakartzeko, Auzoko izeneko programa pilotua abiarazi dute Berriatuan, Bergaran eta Zestoan. Horrez gain, herri askotan harrera protokoloa daukate, Bollarrek esplikatu digunez: “Kanpotar bat datorren bakoitzean erroldan izena ematera, orri bat ematen diogu esateko Euskal Herrira etorri dela, udalerriko hizkuntza ofiziala euskara dela... Hizkuntza bitan egiten da orri hori: euskara eta beste bat”.

**EUSKARA ZERBITZUA**


Herriko plaza z/g 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 13 euskara@errenteria.net

**UDAL EUSKALTEGIA**

Miguel Zabaleta 14, 20100 Errenteria
Telf. 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

**ERRENTERIAKO UDALA**

UEMA n sartzeko baldintza soziolinguistikoak betetzen dituzten Hego Euskal Herriko udalerriak



- 59 udalerrik osatzen dute UEMA une honetan: 13 Bizkaikoak dira, 33 Gipuzkoakoak, 12 nafarrak eta arabar bat.
- Beste 77 udalerrik betetzen dituzte Hego Euskal Herrian UEMA n egoteko baldintza soziolinguistikoak.
- 113.661 lagun bizi dira UEMAko udalerrietan.
- UEMAko udalen %54ak 1.000 biztanle baino gutxiago dauka.
- UEMAko udalerri bik baino ez dituzte ganditzen 10.000 biztanleak: Azpeitia eta Bergara.

Iturriak: UEMA, Eustat, Wikipedia

Kontuak kontu, UEMAren estatu berriek ez dute Espainiako Estatuaren erreakziorik eragin oraingoz. Mankomunitateko kideak itxaropen tsu ageri dira: dagoeneko ez badute egin, ez dute uste “ukituko” dituztenik. Bitartean, jarraitzen dute saiatzen euskara hutsezko funtzionamendua legedian nola edo hala jasoa egon dadin. Eta ez hori bakarrik: UEMA bere burua birdefinitzen ari da.

1991tik gauza asko aldatu dira Euskal Herrian. Garaiei egokitu beharrak aginduta, udaberrian burutuko den hausnarketa prozesuan murgilduta dago UEMA. Betiko helburuei eutsiz, hori bai. Esan gabe doa euskal udalerri elebakarrentzat marko juridikoa eratztea dela hausnartzen ari den gaie taker bat. Abiapuntua ez da oso sendoa, tamalez.

Ezin hizkuntza propioari lehentasuna eman

Uneon daukaten heldulekuetako bat EAEko Euskararen Aholku Batzordeak kaleratutako *Euskara 21* txosteneko esaldi hau da: “Arnasgune horiek [gune euskaldunak] zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman

Euskarak

milaka aurpegi,

milaka ahots

nik ere
euskaraz

Parte hartu euskararen mosaikoan
zure argazkia bidaliz

www.nikereuskaraz.net
www.gukereuskaraz.net

Abenduaren 3a, Euskararen Eguna Donostian

Abenduaren 3an, 4an eta 5ean, bisita gidatuak Chillida Leku eta Kutxa Kubora

Kutxa Kubo

"Jai Alai. Euskal pilotaren edertia" erakusketa
Abenduak 3, 19:00 / Abenduak 4 eta 5, 12:00

Chillida Leku

Abenduak 4, 10:30

Izena emateko: 943-48-37-50 edo udala_euskara@donostia.org

Mintzodromoa

09:00-11:00 / 15:00-18:00

Artess Café

Hizkuntzen mosaikoa

11:30

Boulevard

Kontalaria

12:30-14:00 / 16:00-18:30

Gipuzkoa plaza

Zientzia ikuskizunak

17:00

Kartoizko Suziriaren Sekretua

Zientziaren Kutxaguneko Plane tariuma

18:00

Hotzez irakin Nitrogenoarekin

Zientziaren Kutxaguneko Museoa

Zurrunbiloa

18:30

Kutxa Kultur Zirkuitua: "Haragizkoa" ikuskizuna.
Edorta Jimenez eta Rafa Rueda.

20:00

Taldeko argazki erraldoia

20:15

Blaka eta Ze esatek!

Boulevard

Plazatik Plazera

Kuba-Uruguai-Euskal Herria
Repentistak-Payadoreak-Bertsolariak

20:00

Antzoki Zaharra

**Gaztezulo bideo-lehiaketako
sari-banaketa eta festa**

22:00

"Hala mintzatu zen Zappatrusta" ikuskizuna.
Ander Lipus. Ondoren DJ Bull.

Doka

Abenduak 5, igandea

Real-Athletic derbya

Derbyan ere euskaraz



ANDY ROB-CC BY SA



JOSE AN PRADO-CC BY SA

Bermeo eta Getaria, legegintzaldi honetan UEMAtik irten diren zortzi udalerrietako bi.

beharko zaie euskararen arnaguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan". UEMAREN ustez, hitz horietan gordetako teoria lege bihurtzeko jauzi handia egin beharko litzateke, gauden-gaudenean. Are okerrago. Inigo Urrutiak gogorarazi digu etorkizun hurbilean ezin daitekeela ezer onik espero Espainiako Konstituzio Auzitegiak Kataluniako *Estatut*-ari buruz emandako sententziaren ostean. "Bertan esaten da ezin zaiola bertako hizkuntzari lehentasunik eman gaztelaniaren gainetik". Aurrekari horiek ikusita, Urrutia seguru dago udalerri euskaldunen balizko lege bat Konstituzioz kanpokotzat joko litzatekeela.

Zailtasun eta guzti ere, eraginkor

Legea alde ez izateak ez die eragotzi aurrerapausoak egitea. 2006 eta 2009 bitartean, Kontseiluak hizkuntz politikaren neurketa egin

zuen ehundik gora udaletan, eta emaitza onenak lortu zituzten hamarrek UEMAKO kideak ziren.

Kataluniako *Estatut*-ari buruz Espainiako Konstituzio Auzitegiak emandako epaia ikusita, oso litekeena da udalerri euskaldunen balizko lege bat Konstituzioaz kanpokotzat jotzea

"Horrek argi uzten du gure hautua dela eraginkorrena euskararen normalizazioa bultzatzeko", diote.

Zailtasunik ez zaie falta, euskara hutsez aritzea ia ezinezkoa baita. "Udalerriaren bizitza guztia euskara hutsezkoa izan dadin ahalegintzeko 'borroka' asko egin behar da, aldun-

diekin, osasun sailekin, garraio konpainiekin, enpresa pribatuekin...", dio Jon Bollarrek. Legerik ezean, Udalaren esku ez dauden zerbitzuak euskarazkoak izatea zerbitzu-ematearen borondatearen menpekoea da. Esan gabe doa UEMAREN ahalegi- nek ez dutela beti saria lortzen, eta zenbait esparrutan benetako zulo beltzak daudela, osasun zerbitzuan esaterako.

Agian horrek kentzen die gogoia udal askori UEMAN sartzeko. Bollarren berbetan, "sarritan zalantzak aipatzen dizkigute, ez dakite gure hizkuntz politikara egokitze gai izango diren". Mankomunitateko udalerri gehienak txikiak dira, eta txikiak dira, halaber, kide izateko baldintzak betetzen dituztenak. "Euren arazo handiena errepidea konpontzea izaten da, hizkuntz politika nahiko kezka urruna da haientzat. Askok uste dute euskara



IBARRAKO UDALAK

San Bartolome plaza 2
20400 IBARRA
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27
euskara@ibarrakoudala.net
www.ibarrakoudala.net

• Administrazioa	943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua	943 67 38 27
• Txontxo Ludoteka	943 67 51 72
• Uzturpe Udal Haur Eskola	943 67 02 84
• Kiroldegia (Tel/Faxa)	943 67 15 44
• Kultur Etxea	943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua	943 67 04 15

gazte**hitz**
euskaraz



EUSKARAREN ASTEAK

AZAROAK 28

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Ongi etorri Pupu eta Lore
Non: **Mendizorrotzeko kiroldegia**
Ordua: **12:00 eta 18:00**
(ate irekiera ordubete lehenago)

AEK-ko euskaltegietan 6,5€
(Bartzelona 28, Lakua; Jose Mardones 8,
Judimendi; Arana 30, Arana)
eta **Hala Bedi taberna** (Aiztogile 98) **6,5€**
Interneten: www.kulturalive.com. 8€
Antolatzailea eta kudeatzailea:
Gasteizko Txosnen Batzordea

AZAROAK 29

**Doltza: Dultzinea Quixote vs.
Teresa Panza antzerki lana.**
Agerre teatroa. 2010eko Max saria.
Non: **Jesus Ibañez de Matauco antzokia**
(Hegoalde gizarte etxea)
Ordua: **20:00**

Plazatik plazera.
Bertsolariak (Manex Agirre, Oihane Perea)
eta decimistak
Non: **Bibat**
Ordua: **20:00**

Bide Ertzean. Kontzertua
Non: **Luis Aranburu musika eskola**
Ordua: **19:00**

35 mm, zinea euskaraz:
Check point rock.
Non: **Florida zinema (5. aretoa)**
Ordua: **20:00**

AZAROAK 30

Paradisua, katuak eta abar.
Bernardo Atxagak irakurriko du inoiz
argitaratu gabeko testu hau.
Non: **Floridako Kultur Etxea**
Ordua: **20:00**

Plazatik plazera. Bertsolariak
(Iñaki Viñaspre, Izar Mendiguren)
eta payadoreak
Non: **Parral taberna**
Ordua: **20:30**

Jon Mantxi -Ia dena.
Hedoi Etxarte- Ihes ederra.
Komikiak euskaraz
Non: **Zuloa**
Ordua: **19:00**

35 mm, zinea euskaraz:
Euskal Herria Jamaika Clash
Non: **Florida zinema (5. aretoa)**
Ordua: **20:00**

ABENDUAK 1

Esne Beltza.
Non: **Unibertitate pabilioia. Kultur
Campus**
Ordua: **19:30**

Gasteiz kantuz
Non: **Jesus Guridi kontserbatorioa**
Ordua: **20:00**

Patxi Gallego - Pololoak.
Komikiak euskaraz
Non: **Zuloa**
Ordua: **19:00**

35 mm, zinea euskaraz: 80 egunean
Non: **Florida zinema (5. aretoa)**
Ordua: **20:00**

ABENDUAK 2

Nora. Mikel Urdangarin eta Traspasos.
Kontzertua eta dantza.
Non: **Jesus Guridi kontserbatorioa**
Ordua: **20:30**

Igo gora. Diziiplina anitzeko ikuskizuna
Non: **Gora taberna**
Ordua: **20:00**

Skasti. Kontzertua
Non: **Parral**
Ordua: **21:00**

35 mm, zinea euskaraz:
Salda badago
Non: **Florida zinema (5. aretoa)**
Ordua: **20:00**

ABENDUAK 3

GAZTEHITZ! KONTZERTUA

Non: **Medizorrotzeko kiroldegia**
Ordua: **17:00 (ate irekiera)**

**OPIUM, HERRIKADA, GARRAXIKA,
GOSE, BRONZE, BETAGARRI,
DOCTOR DESEO (euskaraz),
SU TA GAR, DJ-a**

SOK 2"
Non: **Kukai dantza taldea**
Principal antzokia
Ordua: **20:30**

ABENDUAK 4

Goi mailako sukaldaritza euskaraz.
Edorta Lamo (A fuego negro jatetxea)
eta Igor Zalakain
(Arzak jatetxearen laborategia)
Non: **Kikilisalda kultur elkarte**
Ordua: **12:00**

Plazatik plazera. Bertsolariak
(Maialen Lujanbio, Andoni Egaña)
decimistak eta payadoreak
Non: **Jimmy Jazz aretoa**
Ordua: **20:30**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SALA
Indurria Polinario Salburuak
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística




Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Escuela Municipal
de Música
Luis Aramburu
Udal
Musika Eskola



ARICHA



beraien herrietan primeran dagoela, kalean egiten delako, eta ez diote hainbeste garrantzi ematen Udaltxeak euskaraz funtzionatzeari”.

Nolanahi, UEMA etengabe saiatzen da kide berriak bereganatzen, eta emaitzen arabera arrakasta dutela esan daiteke: legegintzaldi honetan hamazortzi udal sartu dira, inoiz baino gehiago. Alta, datuak badu bere ifrentzua, aldi berean inoiz baino gehiago irten dira-eta: zortzi, horietatik zazpi bizkaitar. Guztira, UEMAKoak izan daitezkeen eta ez diren 77 udalerri daude gaur egun Hego Euskal Herrian.

EAJrekin harreman zaila

EAJren jarrerak noraino daukan horrekin zerikusia ez da neurtzeko erraza, baina eragiten duela ezin ukatuzkoa da. Adibide modura: UEMA utzi duten azken zortzi herri horien gobernua jeltzaleen esku dago. Egia da, halaber, EAJk agintzen duen beste udalerri batzuek bertan jarraitzen dutela, eta baita ere baten bat sartu dela legegintzaldi honetan. Auzi honi buruz galdetu diogu EAJri, eta haxe erantzun digu haren prentsa zerbitzuak, ohar baten bidez: “Euzko Alderdi Jeltzalearen UEMArekiko harremanak, herri honetako beste edozein erakundeekiko harremanak bezalakoak dira. Hala ere, eta UEMA udalen arteko erakundea izanik, Alderdiaren aldetik udalen esku geratzen da harreman zuzena izatea eta baita bere kudeaketa”.

Aurten Arratzu eta Bermeo irten dira UEMATik. Arratzuko Udalak argudiatu zuen UEMATik bideratzen zizkieten bitartekoak ez



Jon Bollar: “Euskal Herriko hizkuntz gatazka ez da erdaldunen eta euskaldunen artekoa, ezta euskaraz edo erdaraz bizi nahi dutenen artekoa ere, baizik eta euskaraz bizi nahi dugunon eta euskaraz bizitzen uzten ez dugutenen artekoa”.

zituela lar erabiltzen, eta Bermeokoak, berriz, badituela lau euskara teknikari eta euskara sustatzeko nahikoa dela haiek egiten duten lana. Argudiook, itxura batean, bat egiten dute EAJren oharrak aipatzen duen udal autonomiarekin. Haatik, UEMArekiko alderdi politika ongi definitua, eta ez preseski aldekoa, egon daitekeela pentsarazten dute legegintzaldi hasierako gertakariak.

Jon Bollar UEMAKo presidentek azaldu digunez, mankomunitatearen Zuzendaritza Batzordea alderdi bakoitzak azken udal hauteskundeetan lortutako emaitzen

arabera osatzen da. Momentu honetan, Ezker Abertzaleak lau ditu, EAJk hiru, eta beste hirurak gainerakoen artean banatuta daude. “Baina hauteskunde osteko lehenengo Batzar Orokorra egin genuenean, Zuzendaritza Batzordea osatzeko hain zuzen, alderdiko norbait joan zitzaion bertan zeuden EAJkoei, handik alde egin behar zutela esatera”. Ordutik, hutsik daude EAJri dagozkion hiru jesar-lekuak. Horri buruz galdetu diogu alderdi jeltzaleari, baina ez digu erantzun. UEMAk egin dizkien biltzeko eskaerei ere ez, Bollarren esanetan.

Mamuek bizirik jarraitzen dute?

UEMA eta EAJren arteko tirabirak ez dira bart gauekoak. *Mamuek ilundutako barremana*, genioen ARGIAN 1997an. “Mamuak” ezker abertzaleak UEMAn gehiegizko presentzia edukitzea –EAJren ikuspuntutik– ziren garai hartan, eta zenbait adierazpen entzunda harreman txararren muina lehengo bera dela dirudi. “Inolako siglekin lotzeak zein apurtzeak, euskararen sustapen eta erabileraren eskubideen aldeko lanari on gutxi ekar diezaioke. Euskara lis-kar ideologikoen gaineratik dagoen altxorra dugu”, esan digu EAJk, lis-kar ideologikoez galdetu ez diogun arren. Jon Bollarrek, berriz, zera dio: “UEMAko Zuzendaritza Batzordeak hizkuntzaren normalizazioaren aldeko erabakiak hartzen ditu, ez erabaki politikoak. Eta ez daukagu erreparorik ezker abertzalearen herri batek egindako politikari kritika egiteko, okerra begitantzen bazaigu”. ■

www.ahotsak.com/zestoa
Zestoako hizkera eta ahozko ondarea
Euskaldunon historia txikia
zestoarren ahotan



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

euskaraz ere,

NATURALITASUNEZ

Euskadiko Kutxan euskaraz arreta ematea ez da beste edozein zerbitzu.
Gure lan egiteko modua da.

Eralan 2: Liderrak mahaian

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK eta Mondragon Unibertsitateak bukatutzat eman dute Eralan2 ikerketa proiektua eta ondorioak azaroaren 17an agertu zituzten jendaurrean. Euskara normalizatzeko planak dauden erakunde publikoetan eta enpresetan, lidergoaren aldagaiak nola jokatzeko duen aztertzen du proiektuak. Zazpi esperientzia pilotu egin dituzte: Bermeoko Udala, Fagor Ederlan, Gipuzkoako Foru Aldundia, Berrizko Udala, Donostia Gipuzkoa Kutxa, JEZ Sistemas Ferroviarios eta Mungialdeko Gizarte Zerbitzuen Patzuergoa.



S. K.
Eduarne Urrutia, Mikel Uribechebarria, Estibaliz Alkorta, Carlos Ruiz eta Nekane Goikoetxea.

Lidergoa, kirolean, politikan edo feminismoan ez bezala, hizkuntzarekin lotuta oso gutxi landu den aldagaia da. Bi urteko iraupena izan du proiektuak eta zazpi interben-

tzioak lagin txiki bat baino ez dira. Nekane Goikoetxea proiektuaren zuzendariak garbi adierazi zuen euskararen normalizazioan lidergoa lantzea ez dela panazea izango eta ez dagoela mapa borobilik.

Lidergoaren inguruko teorizazioa konplexua da, ezezaguna neurri handi batean, eta zazpi interbenzioetan parte hartu duen batek baino gehiagok aitortu zuen gaian kokatzea ez zitzaizela batere erraza egin. Eralan2 bada ere (Eralan1 aurrekaria baitu), hizkuntza/lidergoa binomioa abiatu baino ez dela egin esan daiteke.

Huheziko Fakultatean, Nekane Goikoetxeak egindako sarrera argigarriak eta zazpi "akurien" azalpenek lagundu ziguten gai ezezaguna pixka bat ulertzeko. Alabaina, ondorengo mahai-ingurua izan zen adierazgarriena. Han zeuden eserita Bermeoko Udaleko kontu hartzaile Eduarne Urrutia, Fagor Ederlan Koop. E.-ko lehendakari Mikel Uribechebarria, Kutzako Gizarte Ekin-tzarako zuzendari Carlos Ruiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ize-nean Maria Jesus Aranburu Kultura eta Euskara diputatua eta Estibaliz Alkorta Euskara zuzendaria. Bostak dira lider euren enpresa edo erakundeetan eta Eralan2 proiektuan parte hartu dute. Oso interesgarria izan zen haien esperientziak entzutea: nola bizi duten euskara lantokian, lankideekin nola garatzen duten harremana euskara tartean dela, norbera eredu izatea nola bizi duten...



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:
www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Artxandako tunelaren iruzurra

Azkeneko egunetan jakin da Bizkaiko Foru Aldundiak Artxandako tunelaren kontzesioa erreskatatu behar izan duela. Ikusirik, zortzi urteko esplotazioaren ondoren, emakidadunak hondoa jo behar zuela, 66 milioi euro jarri ditu Aldundiak bizkaitar guztien poltsikoetatik. Emakidaduna Tuneles de Artxanda SA da. Hari esleitu zitzaion, bere garaian, Bilbo eta Txoriherri lotzen dituzten tunel horien eraikuntza, kontserbazioa eta esplotazioa, 2048. urtera arte. Aldundiko azterketa teknikoek aurreikusitako erabilera kopurua puztuta zegoen, tunelaren eraikuntza justifikatzeko, eta hortik sortu da egoera larria. Errepublikak garaitik zegoen tunela egiteko asmoa. Egunean 36.000 auto igaroko zirela esan bazen ere, 15.000 baino ez dira tunela erabiltzen dutenak, 2007tik aurrera tarifetan deskontuak egin diren arren.

Ez da harritzekoa hainbat sektorek, bereziki ezker abertzaleak, benetako "iruzurra" eta "eskandalu"tzat jotzea azpiegitura honen eraikuntza eta kudeaketa kaskarra. Serioski eta zorrotz ikertu behar da zer gertatu den inbertsio horrekin. Zein dira hain errentagarritasun ekonomiko baxua duen inbertsioaren arduradun? Nork egin zituen errealtetetik hain urrun dauden erabiltzaileen aurreikuspenak, zarrastelkeria ekonomiko hori ekartzeko? Zer du esateko Bizkaiko Foru Aldundiak? Zer esan eta egin behar du BBK-k, emakidadunaren bazkide nagusienetako gisa? Eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak? Zeinek dimititu behar du kudeaketa negargarri eta "iruzur" horrengatik?

Eta zer jazoko da Supersur-aren aurreikuspen eta kudeaketarekin? Artxandako tunelekin gertatutakoa abisua da Supersurarentzat! Denborak esango du!

Juan Mari Arregi

SOLOZABAL
*Eskura ezazu teorikoa 5 egunetan
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

www.solozabalautoeskolak.es

PSOE-EAJ: Patxi Lopezen gaintetik?

HAUTESKUNDE USAINA bapo ari da barreiatzen euskal politikan. Espero bezala, ezker abertzalearen proposamenak ez du lortu Aralar eta EAren baiezkorik, baina ezker abertzaleari, besteak beste, kanpaina prestatzeko aukera eskaini dio horrek, nahiz eta oraindik ez dakien legez egon ahal izango den ala ez.

Proposamena berandu dator gauza dadin, baina gainera, NaBai-ko alderdiek borondaterik onena balute ere, ez dago haien esku bakarrik ezker abertzalea hauteskundeetara aurkeztearena. Alegia, ezin dela iragan politiko hurbila une batetik bestera aldatu, denbora behar dela. Horixe dio ezker abertzaleak aldaketa erritmo azkarragoak eskatzen zaizkionean eta berak ere horixe ulertu eta errespetatu beharko du besteekiko ere.

Baina, sakonean, Nafarroako etorkizun politikoan amua bota du ezker abertzaleak, zein arrain jaso nahiko lukeen argi adieraziz. Eta argi dago Nafarroako espazio politikoan etorkizun hurbilean ez dagoela lekurik euren burua ezkerrekotzat jotzen duten hiru indar abertzaleentzat, Aralar, EA eta ezker abertzalea. Argi dagoen moduan, abertzaleetasunarentzat ere ez litzatekeela ona halako indar sakabanaketa.



Finean, EAJ eta ezker abertzalea dira argien mintzatu direnak, argi utziz ez dutela elkarrekiko ezer nahi, behintzat hauteskundeetara begira. Baina zer nahi dute hauek?

EZKER ABERTZALEA argia izaten ari da bere planteamendu estrategikokan: borroka armatua alboratu eta ezker soberanista eratu. Abertzaleen artean jeltzaleek duten nagusitasu-

**Irudi luke Zapatero
Urkullurentzat kanpaina
egiten ari dela. Edo,
urrunago joanez, EAJ eta
PSOE etorkizuneko botere
banaketa lantzen
ari direla**

na lehiatu eta, erabaki eskubidea helburu, estatuarekiko konfrontazio demokratikoa abiarazi. Eta irudikatzen kasu samurra ez den hau guzti hau gauzatuko balitz, ba ote Maltzagaraino joaterik *Batu Gaitzeneko* jeltzaleekin?

Jose Luis Zubizarreta analistari –eta Ardanazaren aholkulari ohia– kasu eginez gero nekez, bere ustez EAJ eta PSOEren egungo amodioak etorkizunerako sustrai sendoak botako baititu. Gero eta gehiago dira berak moduan pentsatzen dutenak. PP-PSOEren itunaren gaintetik izan behar. Eta akaso Patxi Lopezen gaintetik ere bai.

José Luis Rodríguez Zapaterorentzat ur bedeinkatua izan da jeltzaleekiko akordioa. Baina datozen hilabeteetan irudikatuko den Madril-Gasteiz eskumen desfileak jeltzaleak indartu eta Lopezen gobernua nabarmen higatuko dute. Eta, kanpotik ikusitan, irudi luke Zapatero Urkullurentzat kanpaina egiten ari dela. Edo urrunago joanez, jeltzale eta sozialistak etorkizuneko botere banaketa lantzen ari direla: bat, bien artean gobernatzeko; bi, zerrenda bozkatuena errespetatuz, dagokion lekuan bakoitzak bestearen gehiengoa onartzeko. Horra ETAren ondorengo eszenatokiako koadro posible bat.

KONDENATU BATEN AZKEN EGUNAK

Victor Hugo
Itzulpena: Juan Mari Agirreurreta



ZAZPI ORDUAK

Miren Agur Meabe
Magiaren kristalarekin
bidaiatzeko liburua.



PELLO ZUBIRIA

Irlandan ikusi, burbuila lehertu ostean zer datorren

Bi urte besterik ez: 2008ko udaberrian artean munduko politikari askok eredutzat aipatzen zuten Irlanda orain ez bakarrik kiebra jota dago, Europan beste inon baino odoltsuago erakusten ditu ondorioak herritarren bizimoduetan. Irlandarrak, greziarren gisa kalean oldartu gabe, atzeraldian eta txirotasunean murgildu dira luzerako.

IRLANDARRA NAIZ, ETXERIK EZ DUT, lagundu mesedez” dioen kartoiaren ondoan gaztetxo bat dager Dublin-go erdiguneko espaloian kuzkurtuta *The Guardian*en argazkian. Honela dio kronikaren lerroburuak: “Irlandako gazteak herritik ihesi doaz ekonomiaren hondamendia ilundu ahala”. Ikasleen sindikatuak adierazi du datozen bost urteetan 150.000 estudiantea baino gehiagok egingo duela ihes uhartetik. Futbolariak ere alde egiten ari dira multzoka.

Gainbehera datorren nazio baten irudi latzak marrazten dituzte mundu osoko komunikabideek garaiotako Irlandaz ari direla. Karitatezko otordua ematen dituzten jangelak mukuru daudela deklaritzen dute arduradunek. Edozein kazetarik aurkitzen du auzo *chic* batean etxejabearen bat aitortuko diona baduela aldamenen familia bat tartera janari eske etortzen zaiona. Horietako batek *Guardian*eko kronikagileari esan dion legez “funtsean, hondoratzten ari den *Titanic* bati loturik goaz”.

Ez al zen, bada, Eire “tigre zelta” famatua, urte gutxitan Europako herrialderik atzeratuena aurreko muturrean jartzea lor zezakeen politika ekonomiko ultraliberalaren eredu? Oraindik 2008ko martxoan Bogotako merkataritzako ministroak *The Wall Street Journal*en Irlanda aipatzen zuen Karibe bazterrean ere

jarraitu beharreko modelotzat. Zer jazo zaio esmeraldazko irlari hamar urtez mundu osoari ikasgaiak eman ondoren leizean lurperaturik gertatze? Renaud Lambert-ek polito azaldu ditu *Le Monde Diplomatique*en Irlandak urte laburrotan egin dituen mutazioak, *Les quatre vies du modèle irlandais* artikuluan.

1994tik 2004ra arteko hamarkadan sekulako hazkunde tasak erdietsi zituen. Arrakastaren gakoa, Reagan eta Thatcherrek abiarazitako politika neoliberalak muturreraino eramatean omen zetzan. Irlanda munduko paradisu fiskalen artean kokatu zen: atzerriko konpainientzako ez zergarik eta ez kontrolik ia. Lamberten ustez, irlandarrei ezarritako planek antza handiagoa zuten Hego Amerikako herrialdeei inposatutako “egokitzapen estrukturalen” beste ezerekin baino, aitortu ez zen arren.

Faktore gehiagok lagundu zuen. Lamberteak aipatzen du, adibidez, emakume irlandarren askapena, 1992an antisorgailuak legeztatu ondoren lan merkatuan multzo handian sartu zirelako. Bestalde, Europa baitan egonik, logika bazuen uharreak urte luzetako atzerapenetik ateratzeko urratsak egiteak. Baina Irlandaren beroaldia AEBetatik etorritako kapital eta enpresen aldarre onari zegoen tinkaturik.

The Helpful Engineer bloga egiten duen ingeniariak ipini du argazki hau Interneten: Irlanda hondamendira eraman duen Anglo Irish Bank-en egoitza eraikitzeke lanak geldirik daude 2009tik. Haizearen, euriaren eta itsasoko gatzaren mende ageri den betonezko eskeleto amaitu gabea, zeinena eta irlandarrek nozitu duten etxegintzako burbuila eragin duen bankuarena gainera, Eirek bizi duen kolapso egoeraren ikurra izan liteke. Argazki txikikoa da Morgan Kelly, 2006tik krisia iragartzen ari zena. Orduan idatzi zuen: “Azken bost urteok eman ditugu ikasten esportatzea eta lehiakortasuna ez zirela inportanteak, aberastu gintezkeela etxeak elkarri salduz. Orain urte latz batzuk beharko ditugu lezio hori ahaztu arte”. Berrikitan *The Irish Credit Bubble* argitaratu du. “Kontua da –idatzi du– daukagun etxe huts mordoak dela eta, datozen hamar urteetan ez dela kasik ezer eraikiko”.

2000tik landa AEBetako ekonomia makaltzearekin batera hoztu zen Irlandako sukarraldia. Nola suspertu ahula? Bill Clintonen ondoren Yankee erabilitako trikimailu berarekin: kreditu merkeak orokortu, bankuei kontrol guztiak kendu eta etxebizitzaren espekulazioari haize eman. Prezioak lainoetaraino doaz, etxe berriak perretxikoak legez ugaritzen dira, Estatuak zergen %17 eraikuntza berrietatik eskuratzen du.

Atlantida legez urperatzen

2004an Nazioarteko Diru Funttsak Irlanda laudatzen zuen gainerako estatuen artean. Fransesei eta alemanei ere hura jartzen zitzairen eredutzat, bankugintza liberalizatu, estatuen zerbitzuak pribatizatu eta eskubide sozialak kiskali zitzaten.

Festa-ondokoa 2008an iritsi zen, AEBetan hipoteka ustelek finantza sistema hankaz gora irauli zutenean. Dublingoko burtsa hondoratu zen, langabezia bi halakotu, Estatuaren dirusarrerak %13 jaitsi... Zerrenda ezaguna da, soluzioa bezala: gerrikoa estutze beldurgarria: funtzionarien soldatak jaitsi (%20 arte), familientzako laguntzak %10 murriztu, babes sozial guztietan guraizekadak.

Baina, halaz eta guztiz ere, Irlandak segitu du bi urte gehiagok eredu garri izaten. Zorionak eman zizkion Europako Batzordeak austeritate



planak hain zorrozki ezartzeagatik. Esanez bezala, “zuek zibilizatuagoak zarete greziar egoskor istilutsu horiek baino”. Eredugarri, bai, inbertsioak aurtu %30 jaitsita, kontsumoa izoztuta, soldadak eta laguntza sozialak gehiago jaitsita.

Greziar grebazaleek egin dezakete algar, 2010eko udan ikusi baita nabarmen Greziaren bide beretik segi behar zuela Irlanda txintxoak. “Inork ez du honez gero miraririk aipatzen, baizik eta irlandarren eredu, hainbeste lezio erakusten diguna. Adibididez, austeritate politiken eraginkortasunaz”. Esan nahi baita, gerrikoa estutza kondonatutako herrialde ugarietatik bat baino gehiagok egin dezakeela eiretarren bide berdintsua. Hori entzunik, Madrilen

mende bizi garenoi begiratzen digute europar gehienek.

Hemendik ikusita Irlandan gertatuari ikasbideren bat atera nahi diot, bi izen bederen hartu beharko lituzke gogoan. Lehena Sean FitzPatrick, Eire osoa hamarkada baterako zorretan ito duen Anglo Irish Bank-eko presidente ohia. Tarteka herritar haserretuak ibilaldian hurbiltzen zaizkio Greystones-en duen jauregi- ra. Ez da gutxiagorako, datozen seizortzi urtetan Dublingo gobernuak eskuratuko dituen zergak ia osorik Anglo Irishek egindako zuloa betetzeko izango dira eta.

Morgan Kelly ekonomialari gaztea da bestea, merezi luke hurbilagotik ezagutzea. Munduko *fenixio* nagusiek txaloka “tigre zelta” goraipatzen

zuten garai zoroetan abisatu zuen Kellyk gauzak lehertzeko zorian zeudela. 2006an idatzi zuen lehenbizikoz University College Dublin unibertsitateko ekonomiako irakasle honek: atzerakada ganean zela eta inork uste baino latzagoa izango zela. Batzuek eta besteek egurtu zuten irakaslea ederki.

2007an beste artikulu zorrotz bat plazaratu zuen *Irish Times* egunkarian, eta haren katastrofismoak erantzun ugarietarako eman zuen berriro. Kelly ez da zurikeriatan ibiltzen, gordina eta lotsagabea ere badela diote. Finantza ministro Brian Lenihan-ekin izan zuen polemika sonatua. 2008an azaldu zen arrazoi zuela aurrikuspenetan, etxebizitzetan eta kredituen burbuila lehertzen ari dela. AEBetan Nouriel Roubini ekonomialariak egin gogorarazten du. 2009tik irlandarrek adi entzuten diote Kellyri. Honek urte beltzak iragarri dizkie.

“2015erako ikusita edukiko dugu zer gertatzen den lana falta denean. Irlanda planifikatu gabeko esperientzia sozial erraldoi baten hasieran dago, zeinak erakutsiko baitu nola eragiten dion langabezia gero eta handiagoak delinkuentziari, etxe barruko bortizkeriari, drogen abusuari, suizidioari eta bestelako patologia sozial ugariari”. Xomaia igotzearen parean etxebizitzetan balioak erdira edo gutxiagora apalduko dela uste du.

Ikusiko omen dira auzo osoak hondamendian murgiltzen. Korruptzioa handitzen. Eta AEBetan *Tea Party* sonatua bezalatsu, Irlandak ezagutuko omen du mugimendu eskuin-muturreko, Europaren kontrako eta antisindikala indartzen. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Beste modu batean

Film batzuek arrastoa uzten dute. Gogoan dut *The Picture of Dorian Gray*, Oscar Wilde-ren nobelan oinarrituta 1945ean egindako filma (bertsio berriagoak izanda ere, nire oroimenak bertsio zahar horri eusten dio). Azaroaren 7an, Anjel Lertxundik hartu zuen hizpide, *Hitx besten*, Berlusconi ari zelarik. Agian horregatik etorri zait gogora orain.

Filmean, Dorian Grayk irudi perfektua gordetzen du, inongo estetika-etxetara jo beharrik gabe: haren orde, bere etxeko gela ilun batean ongi gorderik duen erretratu zahartzen da. Erretratuarena, ordea, ez da zahartze arrunta, adinaren zantziek gain, Grayk egiten dituen ankerkeria guztienak ere bereganatzen baititu. Hil-tzen denean, haren eta erretratuaren irudiak alderantziz-katurik ikusten ditugu. Grayren hilotzak denborak eta jabearen txarkeriak utzi-tako markak bereganatzen ditu, eta erretratu, berriz, Gray gazte eta eder baten isla da berriro.

Lertxundik Berlusconi aipatzen zuen, baina nago Gray asko daudela gure munduan, batez ere, boterearen agertokietan. Egunero-egunero hedabideetan ikusten ditugu, dotore jantzita, diskurtso biribilak egiten, eta guri, herritar arruntori lezioak ematen.

Telebistan edo egunkarietan halakoak ikusi eta haien diskurtso zuriak entzuten



Lertxundik Berlusconi aipatzen zuen, baina nago Gray asko daudela gure munduan, batez ere, boterearen agertokietan. Egunero-egunero hedabideetan ikusten ditugu, dotore jantzita, diskurtso biribilak egiten, eta guri, herritar arruntori lezioak ematen

ditudanean, sutan sentitzen dut odola, eta kontsolamendua hartzen dut pentsatuta horiek guztiek, Grayren antzera, erretratuak dituztela, zeinek berea, gela ilun batean ongi gorderik, non, amorrut, jende xeheari egindako aldrebeskeria guztien lekukotasun zehatza jasota ikusi beharko dute, noizean behin.

Kontsolamendu tentela da, hainbeste bidegabekeriaren aurrean ezin ezer egitearen suzedaneo hitsa. Zaila da, ordea, lotsagabekeriei aurre egiteko modu on bat asmatzea.


Zaila bezain beharrezkoa da, ordea, modu berriei ekitea. Egun baliatzen ditugun eta baliatzen gaituzten pentsamoldeei ihes egin eta beste modu batean pentsatzen eta egiten hastea. Badira adibideak historian, baina ez zaie muntarik ematen. Gandhi, adibidez, bakezale handia izan zen, baina bere manera sotlekin inperio oso bat urduritu zuen. Hori gutxitan azpimarratzen da. Noiz edo noiz, baten batek nagusikeriei aurre egiteko metodo leun bat asmatzen du, hankaz gora jarriz guztiek finko eta tinko jotzen zutena. Ohitu gara pentsatzen gauzek beti berdin

segitu behar dutela. Hala izango da agian, baina hasi beharko genuke zirrikituren bat irekitzen beste aukera batzuei, gure pentsuek beti hartzen baitiete aurre gure ekintzei.

Hasteko, helarazten dizkiguten mezuak kolokan jar ditzakegu. Galdetu, adibidez, zer on dakarten auto handi distiratsuek, diseinuzko etxe dotoreek edota luxuzko jantzi eta osagarriek.

La guerre du feu filmean bezala suaren antzeko ondasun funtsezko batengatik gorriak ikusi edota besteei bereak eta bi emateak zentzuren bat izan dezake, baina, zer zentzu dauka besteak zapaltzen ibiltzeak, gero, Madoffen antzera, etxeko zapatilak urrean brodatu izateko? ■

ASTE HONETAKO zozketa



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Txomin Etxaniz TXAKOLINDEGIA



Txomin Etxaniz txakolina

Txakolindegira bisitaldia
8 laguneko taldearentzat

C/ Eitzaga Auzoa, 13
Getaria GIPUZKOA

www.txominetxaniz.com

2



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

3



Bide ertzean Don Inorrez

Donostiako
Victoria Eugenia Antzokian
kontzertua

Bi lagunentzako bina sarrera

Abenduaren 16an, 20:00etan

www.bidertzean.com

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2252. Argia)

SAIAZ

- Juanpe Soloeta Ibañez (Durango)

INGURU

- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)
- Jesus Aparicio de Castro (Bilbo)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

ZIZTADAK

- Errose Aurkoetxea Gurtubai (Igorre)
- Iker Urkia Martinez de Lahidalga (Aretxabaleta)

HOR HAGO KEVIN

- Errioguarda Enea Jatetxea (Hernani)
- Lizarra Ikastola S.Coop (Lizarra)
- Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)
- Manuel Beloki Zulaika (Zarautz)
- Maite Garmendia Altuna (Azpeitia)

CD SORTA

- Xabier Zendoia Aizpurua (Zumaia)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Zarauzko Berritzegunea (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea



jailetan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gozatu
euskoraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendearekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da.
Berezkoa dugu. Lagunen artean, gure
giroan, **gure artean euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia